



Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga

«Mihise zuria dira loreak, norberak esanahiz betetzeko zain»



- **Kataluniako Diada** Azken bultzada independentziari?
- **Herriko Tabernen auzia** Clara Bayarri epaileak "dena da ETA" doktrina lehertu du
- **Koldo Zuazo** «Luziano Bonaparteren aurkari nagusia ez, haren aldekorik handiena naiz»
- **Net Hurbil** Panagrotis Grigoriou antropologoa, Troikak hil duen Greziaren kronikagile
- **Tania Arriaga** «Errepikatzen diren esaldiek zer botere duten aztertu dut»



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknika: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

euskaraz
bai

NON ZER

2014ko irailaren 21a, 2.429. zenbakia

ASTEKO GAIA

KATALUNIA Galdeketa airean. GORKA BEREZIARTUA
MITXELENA / 4

PERTSONAIA

TANIA ARRIAGA: «Ongi egokitutako kapitalistak gara euskaldunok». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIK Murrizketarik ez egitea ez da nahikoa, beharra handitzen denean.
LANDER ARRETXEKA BEREZIARTUA / 14

IRITZIAREN LEIHOA

IRRIBARREK JUNE FERNÁNDEZ / 16

LEGITIMITATE BIKOITZA AINHOA LARRAÑAGA / 18

PABLO BERASTEGUIK EZ DAKI EUSKARAZ, BUT WHO CARES?

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN N-340. EDU ZELAIETA / 18

BERTSO BERRIAK Eskoziaren gaztaka. JON MAIA SORIA / 19

ERDIKO KAIERA

JON GARAÑO ETA JOSE MARI GOENAGA: «Metaforikoak bai, baina ez dugu kriptikoak izan nahi».
MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 20

ZINEMA Ikusmira sortu duten hiru filmez, Muñoz eta Bengoetxea. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 24

DOROTHY ARZNER Urrezko Aroko emakume zuzendari bakarra. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 27

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 28

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 29

ALEA Dantza maitaleak nonahi. MYRIAM GARZIA / 31

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

HERRIKO TABERNEN AUZIA Epailea defentsa abokatu bihurtzen denean. XABIER LETONA / 35

MUGIKORTASUNA Eredu osoa aldatu nahian Donostian.
ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 38

KOLDO ZUAZO: «Bistan da gurasoek eta euren seme-alabek desberdin hitz egiten dutela». MIEL A. ELUSTONDO / 40

ARGIA EGUNA Bizi egun bat ARGIAren baloretan.
ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Antropologoa mintzo Troiak hiltzen duen Grezia akitutik. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Galdeketa airean

Badakizu marka guztiak hautsi dituen jendetza elkartu dela irailaren 11n Bartzelonan, baita zer eskatu duen ere: azaroaren 9an Kataluniaren independentziari baiezkoa ala ezezkoa eman nahi diola erreferendumean. Apika, interesatuko zaizu jakitea zer arnasten den Esteladen herrian gaia hain bero egoteko. Prozesua gertutik jarraitzen dutenen bidez azalduko dizugu.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

Argazkiak: ANC

BANDERA INDEPENDENTISTA lepoan lotu eta super heroiaren kapa bihurtu duen haur hori gelditu egin da Gran Vian, auskalo zeri begiratzeko. Aurrerago, emakume batekin eta beste haur batekin oinez segitzen zuen gizonak, posibleki ume distraituaren aita, atzera egin du. Daukan adina baino zaharragoa dirudi, bi eguneko bizar punta zuri batzuk, kopetako ileak izerdiz pegatuta –Bartzelonako hezetasun honek Mediterraneoko espeziekoak ere irakiten ditu–. Ez dago bi galderatan denbora galtzeko: besotik oratu dio eta “*aneeeem*” gogaitu batekin eraman du kezaka hasi den Estelada ibiltari txikia. Diadako ekitaldi nagusia amaitu da duela ordu erdi Glòries plazan. “V” letra erraldoia, Kataluniaren historiako manifestazio handiena, jendea, jendea, jendea eta jendea, pixkanaka dispartsatzen ari da Instagram filteroa jarri dioten arratsean.

Eguna luzea izan da. Balio izan du lagun zaharrak agurtzeko, edateko, kantatzeko, dantzatzeko, beste milaka pertsonarekin olatua egiteko. Eta nekatzeko. Mobilizazio politikoez ez dizute kontatzen hori: Bartzelonaren arteriak kolapsatu dituen *flashmob* erraldoi honek, adibidez, sakrifizio txiki batzuk eskatu dizkiola katalan arruntari.

Medikuek jai egunetarako aholkatzen dutena baino lehenago jaiki zaitez, hasi trasteak prestatzen, non dago bokadiloa biltzeko albal papera, berandu iritsiko gara, ikusiko; konbentzitu ezazu umea ezetz, gaur kamiseta horia jantzi behar duela eta ez Spidermanena; eta iritsi hirira, bilatu egokitu zaizun tartea eta, bitartean, ea ez garen galtzen, aizu, hemen al da? Eta orain? A, geldirik egon? Eguzki honekin? Ze ondo. Hau jende pila, *la mare que el va parir*.

Eguerditik ia arratseko zortzietaraino pasa duen tarte luzea aurreztuko diogu gure kata-

lan sufrituari, bukaerara zuzenean joateko: etxera itzultzeko ordua iritsi da noizbait, eta bere pazientziak proba hau gaingitu duela uste du, etxeko sofa jada ipurmasailetan sentitzen hasi da eta deskantsu santua gertu dagoenean, zer egingo mukizuak? Ilargira begira geratu. *Ostres*, zail jartzen dizute. Eskerak hau azkenekoa izan den.

Ze... azkenekoa izan da, ezta? Honen ondoren azaroaren 9an kontsulta egingo dugu, ezta? Hori esan du manifestazioa deitu duen ANC erakundeko Carme Forcadellek agertoki nagusian. Berak eta beste askok. “*Votarem*” eta “*guanyarem*” hitzak entzun dituen aldi bakoi-tzean petakan zeraman pattarrari xurruta

kendu izan balio, eguna balantzaka bukatuko zuen Diadari buruz informatzera etorri den kazetariren batek –beharrik, edateko jokoak ez politizatzeke gomendioa serio hartu du–.

Afaltzeko, Artur Masen agerraldi instituzional laburra: “Ezin zaio herri bati bozkatzea eragotzi, bozkatu nahi baldin badu”. Adierazpen batzuk irmoagoak dira, beste batzuk epelagoak, baina denek

norabide bera seinalatzen dute. Independentziari buruzko kontsulta da iparra abezedario konpletua egiteko moduan dagoen masa honentzat. Beste dena airean dago ordea. Mas “V”-a konbokatutik dutenekin bildu da 11n bertan eta ez die argitu boto-ontziak atarako ote dituen. Mezu bikoitza Govern kataluniarrarena. Etxerakoa, lan egingo duela kontsultaren aldeko alderdien batasunari eusteko; Madriler begirakoa, galdeketa-terminoak negoziatzeko eskatuko diola Rajoyri.

Hilaren 19an onartuko dute kontsulta legea Kataluniako Parlamentuan eta, ez itzali telebista, orain etorriko dira eszena dibertigarrienak.

CiUk ez du erraz edukiko orain prozesutik jaisteko, Diadako jendetzak gogor bultzatzen baitu. Eta Madrilek galdeketa debekatuz gero? Legea hautsi?



Historiako handiena izan da aurtengo Diadan egin den "V" formako mobilizazioa. Herritarren bultzadak eraman du Katalunia erreferendumaren ateetara, baina oraindik ez dago erabat argi azaroren 9an zer pasako den.

Alderdien txapuzaz, independentzia

Sant Jaume plazatik gertu dago garaia desafi egiten dion kastako kafetegia, marmolezko mahaiekin. Alkandora zuriz jantzitako kamareroak gomazko "L"-ak ahoskatzen ditu zer nahi dugun galdetzean. Han topatu dugu Enric Rimbau. Urte askoan *El Temps* astekarrian –nolabait, ARGIAren lehengusu kataluniarra– aritu da politikaz idazten eta pasioz bizi du prozesua. Nabari zaio, prestatuta geneukan galdetegia baino askoz ertz gehiago aipatu baititu lehen erantzunerako: bere ustez CiUk ez du erraz edukiko gaia bere interesen arabera bideratzen. Abuztuan askok apustu egiten zuten kikildu egingo zela, baina Diadako jendetzak gogor bultzatzen du, ez dago atzera bueltarik.

“Paradigma aldaketa gertatu da Katalunia-ko politikan, autonomismoa bazterrerera desplazatu da eta independentismoa bihurtu da bizkarrezur. Ikusi dugu katalanismoa porrot egiten, bi aldiz errepikatu da gobernu tripartiti-

Paradigma aldatu da: independentismoa orain bizkarrezurra da, katalanismo tradizionalak porrot egin duelako

toa [PSC-ERC-ICV] eta CiU saiatu zen haiek kontraesanean jartzen nazionalismoaren banderarekin; gero Estatutaren erreformarekin gertatu zen guztia... prozesu luzea izan da puntu honetara iritsi arte”.

“Porno hutsa izan zen”, gogoratu du Salvador Cot *Nació Digital* webguneko zuzendariak. Passeig de Gràciako erredakzioan, hizketan hasi da Estatutaren negoziazio garaiko traizio eta jukutria kolezioaz. Madrilgo jatetxe garestietan jokatzeko orduan Kataluniako marko politikoa, menua osorik jatea plateren izenak ikastea baino errazagoa den txoko erreserbatuetan. 1978tik erregimen zaharreko bi alderdi nagusiek, CiUk eta PSCk, oso berea izan dute estiloa:

akordio pribatua eta tripartidua lehenbizi, azalpen publikoak gero. Urteetan funtzionatu zuen, zergatik orain ez?

Ordurako sintoma askok diote herritarra enpo egiten hasia dela. Konfiantza galdu duela ordezkari politikoeekin. Eta, konta dezagun haurtzako ipuin baten gisan, bazen behin

David Fernandez (CUPEko parlamentaria) «Zoritxarrez hau ez da Eskozia»

Zerbaiten bukaera izan da Diada hau ala zerbaiten hasiera?

Ziklo bat bukatzen dela begi bistakoa da. Orain gatazka fase batean sartuko gara erakundeen artean, baita arlo juridikoan ere. Zoritxarrez hau ez Eskozia eta ez da izango. Espainiako Estatuak uko egin dio konponbideari, beraz bide kataluniarra, zoritxarrez, bide eskoziarraren aldean diferentea izango da. Presio soziala eta ehundura asoziatiboaren eragina garrantzitsuak izango dira oraindik.

Baina, goia jo al du mobilizazioak?

Gizarte bat hainbeste mobilizatzen denean leher eginda buka dezake, egia da. Zerbait gertatzeko momentua da, zerbait ukigarria; baina era berean, “ez dago atsedenek nekatuentzat”, hemengo idazle batek zioenez. Kataluniako mugimenduak ez dauka Europar parekorik gaur egun eta oso dinamikoa da, oso soziala. Behetik gora egin da prozesua.

CiUk atzera egingo duela zirudien abuztuan. Zuek desobeditu eta aza-



G.B.M.

roaren 9an hautestontziak ateratzearen alde zaudete.

Eztabaida ez da Espainiako Estatuak zer egingo duen, hori argi dago: kontsulta debekatuko du. Garrantzitsuena da nola erantzun-go diogun herri gisa. Guk argi daukagu desobedientzia zibilaren aldeko apustua. Subjektu politiko burujabea bagara, lehenbiziko burujabetza ekintza hautestontziak jartzea da Kataluniako gizarteari obedituz –aukeratu behar badugu tribunal bati ala herriari obeditu, guk herria aukeratzen dugu–. Ikusi beharko da zein irtenbide amanko-

mun bilatzen dugun, argi baitago CiUk buruan daukan eszenarioa ordezko-hauteskundeak direla, hau da, plebiszitarioak.

Zein da CUPEk lehenesten duen bidea?

Zilegitasun demokratiko handiena erreferendumak ematen dizu. Gure eskema da, lehenbizi erreferenduma eta bi baiezkoez irabazten badute, prozesu konstituziogilea. Eta ondoren negoziazio fase bat, nazioarteko eskematan.

Eta hurrengo fasea behar bezala landuta dago?

Eztabaidak asko egin du aurrera: jendea planteatzen ari da nolako eskola publikoa nahi duen, nolako osasungintza, lan harremanak, ondare natural eta artistikoa nola babestu... Hori da prozesuaren alderdirik interesgarriena nire ustez, eredu berri baten oinarriak jar daitezkeelako. 1978an batzuk jarri ziren, iruzur hutsa, eta orain beste batzuk jarriko ditugu demokrazia berrasmatzeko.

Arenys de Munt izeneko herri bat, independentzia erreferenduma antolatzeko prest. Itxuraz betidanik kausa horrekin bat egin dutenen autokontsumorako zerbait da, baina zarata ateratzen du. Segidan beste batzuk datoz herriz herri. Eta kontsulta bakoitza ez da galdeketa sinbolikoa bakarrik: inguruan antolatzen diren hitzaldiak dira, tertuliarako gai berria daukan jendea, inoiz mugitu ez ziren pertsonak bat egiten hasia. Prozesua nola disparatu zen laburbildu du Rimbauk: “Mobilizazioek alderdiak gainditu zituzten eta Diada bakoitzean klase politikoari bultzada berriak eman dizkiote”.

Dirudunek ere badute beren prozesua

“Jende hau guztia ez da kabitzen Madrilgo jate-txe batean”, dio Cotek, Esteladaz lehertzeare dagoen 12ko egunkari baten portada seinatuz. Herritarren dinamikatik abiatzeak –eta ez buru-

zagi politikoetatik– daukan abantaila hori da: “ANC ez dago negoziatzera behartuta, ez du ezer paktatu beharrik alderdiek egin ohi duten moduan”. Eta milaka lagun kalera ateratzeko gaitasuna dauka, partiduek, pelikularen zati honetara iritsita, inoiz lortuko ez zuten sinesgarritasunez.

Valentziako korrespontsalak deitu diolako solasaldia eten dugu une batez. Berriz gaian bete-beteant sartu denean, elite ekonomiko katalanen ahuleziak hitz egin du: “Prozesu honek erakusten du ez dutela eragiteko gaitasunik. Bestela, geldiaraztea lortuko zuten. Eskuratuko zuten Madrilan eskaintza-aren bat, kontzertu ekonomikoaren antzeko zerbait, adibidez. Eta horrek prozesua etengo zuen belaunaldi baterako”.

Eskaparatea hutsik ikusteaz aspertuta, klase agintariak erabaki du ez geratzela Moncloa noiz irekiko zain. “Baliabiderik gabe

Eskoziak “yes” esan zezakeela zioten inkestek Espainiaren zorrari kalte egin diote merkatuetan. Burtsak ere bere partida joka dezake Kataluniako prozesuan

Marta Rovira (ERCko idazkari nagusia) «Erreferendumaren bila joan behar dugu bururaino»

Abuztua nola joan den ikusita, galdeketa alde zaudeten alderdien kontsentsua apurtzeko arriskurik ba al dago?

Ez da kontu berria, CiUrekin egonkortasun parlamentarioak paktua sinatu genuenetik zailtasun handiak izan ditugu. Logikoa dela uste dut, bi alderdiak oso diferentek garelako. Batzuetan ezinezkoa izan den arren, kontsentsuak lortzeko lan handia egin dugu, elkarrekin eutsi diogu, ulertzen dugulako gainera dagoela kataluniarrek bozkatu ahal izatea.

Desadostasunak badira, beraz.

Bai, baina konbentziturata nago gaitutako ditugula. Akordioa oraindik indarrean dago eta hori da garrantzitsua.

Masen gobernuak hauteskunde plebisitarioak deitzeko keinua egingo balu, zer?

Uste dugu gobernuak ezin duela horrelako keinurik egin bere kabuz. Hitz egin beharko genuke aurretik. Gure mandatu demokra-



tikoa zein den argi dugu eta ez da herritarrek hauteskundeetan bozkatea, gure herrialdearen etorkizuna erabakitzea baizik; eta hori lortzeko modu bakarra erabakitzeko eskubidea praktikan jartzea da. Horren bila joan behar dugu amaierara arte, fisikoki hautestontziak eskuetatik kentzen dizkiguten arte.

“B plan” gisa ez duzue buruan CiUrekin batera aurkeztuko zinateketen hautagaitza bateratu bat?

Ez dugu “B planez” hitz egiten, horiei buruz espekulatzen denean

abiapuntuko hipotesia zera baita: ez dela kontsultarik izango. Galdeketa nahi ez dutenei lana erraztea da. Momentuz zarata asko entzun dugu gai horrekin, baina guk oraindik ez dugu kontsultarik deitu, ez digu inork debekatu, eta kontsulta indarrean dago.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak debekatuko balu, CiU ez legoke legea hausteko prest ordea. ERCk presionatuko lioke?

Konbentziturata gaude marko legal batean gaudela eta bozkatzeko aukera ematen digula. Kontsulta legea egin dugu eta haren abiapuntua Estatutean dago, baita Espainiako Konstituzioan ere. Azken buruan, printzipio batean sustraituta dago: printzipio demokratikoa. Eta hori unibertatsala da. Beraz, ziur gaude ez gabiltzala legetik kanpo, baita Konstituzionala erabiliko duela Espainiako Estatuak epai politiko bat emateko, ez juridikoa. Ez dugu ulertzen zergatik gelditu beharko genukeen.

gelditu direlako mugitu dira hemengo eliteak independentismorantz”. Baina adi, eliteez hitz egitean zertaz ari garen zehaztea beharrezko iruditzen baitzaio Rimbauri: “Ez da gauza bera enpresa handi bat, botere guneetatik gertu dagoena eta *statu quoa* bizibide duena; edo lantalde bat daukan enpresario txikia. Txiki eta ertain horien artean hazi da asko independentismoa”.

Eta besteak zer? Diru handien planetan ere ari dira gauzak gertatzen Cotek dioenez: Eskoziak erreferendumean “*yes*” esatea benetako aukeratzat jo duten inkestek, huts-hutsean, Espainiaren zorra hamar bat puntu jaitea eragin dute Diadaren astean. “Hango prozesuaren hasieran, Londresek bermea eman zuen: Eskozia joaten bada ere, daukaten zor osoa ordainduko dute. Wall Streeteko marrazoek ez dute uste, ordea, Espainia gai denik beste hainbeste egiteko Katalunia gabe”.

Beraz, eta motzean esateko: merkatuetan ahul dago Espainiaren zorra. “Bezeroei hura saldu eta Italiakoa erosteko gomendatu diela

esan zuen burtsako aditu batek *Bloombergen* eta *Wall Street Journalen*”. Diadako jendetza ikusita, trajea pagatu ezin duen toreroaren kontura egin dezaketeko negoziorekin hortzak izerditan hasi zaizkie zenbaitzuei. Eskoziaren baiezkoak elementu berriak sar ditzake jokoan, Espainiako edo Kataluniako agentetarik harago.

Politika zaharraren parametroetan oraindik

“Nire ikuspuntua oso minoritarioa da”, ohartarazi digu Guillem Martínezek, Born ondoan dagoen Casa Delfíneko terrazan eseri eta berehala. Badakigu. Diadaren biharamuna da –hitzaren zentzu guztietan–, eta *Port Aventura Secessionista* bihurtuta ikusi berri dugu Bartzelonako erdigunea. Jakinaren gainean gaude, halaber, gauza *independe* honek asko sukartzan dituela gure irakurleak, eta horregatik, “*ice bucket challenge*” batekin bukatuko dugu erreportajea.

Ironiaz zerbait badakien kazetari eta idazle honek uste du Kataluniako prozesua hain dela handia, bere esanahiari ihes egiten



JORDI BEDÓS



JOAN TORRENS



JORDI VENTURA I PLANS



CARLES PORTA

Port Aventura Secessionista bihurtu zen Bartzelona irailaren 11n. Azken espektakulua independentzia aurretik?

diola: erregimen baten amaiera da eta aldi berean haren defentsa, dena da kontraesan-korra. “Katalunia profesionalentzako herrialdea da. Esan nahi dut, profesionala izan behar duzula hau ulertzeko, oso arraroa da”. Eta hortik abiatzen da saltsa guztia, bere ustez: “Espainiako Gobernuak ez zuen ulertu CiUk oraingoan ere betikoa eskatzen zuela. Gauzatxo batzuk negoziatu, besterik ez; horretarako dramak eszenifikatuz, noski, eta drama horientzako soluziotxoak. Apustua serioa zela pentsatu da eta ondorio katastrofikoak izango ditu, bai Espainiarentzat, bai CiUrentzat. Posible da bukaeran biak desagertzea”.

Propaganda gisa deskribatu du Convergènciaren eta ERCren arteko paktua, ikuskizuna, bi gobernuren arteko talkarekin herritarrak entretenitzea, murrizketa demokratiko bortitzak egiten dituzten bitartean. “Azaroaren 9an erreferendumik egiten ez denean, ez baita egingo –Espainiako Gobernuak arrazoi erabat antidemokratikoengatik uko egiten diolako eta Generalitateak ez daukalako interes berezirik–, beste propaganda operazio bat asmatu beharko dute”.

Martínezek nagusiki “politika zaharren” elementuak ikusten ditu abian den prozesuan. “Eta politika berria agertuko da,

erabakitzeko eskubidearen bidez, baina baita beste eskubide askoren bitartez ere. Eta ez dago hau kudeatzen ari direnen aldetik inolako interesik, CUP aparte utzita, horrelako iraultza demokratikoa izan dadin. Lurralde-tasunaren kudeaketa bakarrik da alderdientzat, hau da, azken 30 urteetako kultura espainiarrean onartu den eztabaidagai bakarra. Nik uste ez direla konturatu ere egin markoa apurtu egin dela”.

Jaume I metro geltokitik gertu Martínez agurtu, kaskoak belarrietan sartu eta kiosko batera hurbildu gara, mobilizazio historikoz informatzeaz gain, irailaren 12ko *El Punt Avui*n Joseba Sarrionandiari elkarrizketa egin diotelako –irakurgai ona izan daiteke bueltako bidaiarako–. “*Quedem el 9-N*” dio letra larriz azalean. Bi hilabete baino gutxiago galdeketa egunerako. Denbora dilatatuko egingo da tarte horretan, erabakiak azkartu, zirt edo zart, minutu bakoitzak garrantzia daukan fasean sartu da Katalunia. MP3aren *random* aukerak ere ulertu du egoera, eta auzi honen galdera fundamentalak gogora ekarri du The Clashen eskutik: “Joan behar nuke ala geratu? Joaten banaiz estilua izango da eta geratzen banaiz problema bikoitza”. ■



PERTSONAIA

TANIA ARRIAGA

«Ongi egokitutako kapitalistak gara euskaldunok»

Lan etnografiko guztiak ez dira iraganaz mintzo. Tania Arriaga kazetari iruindarrak nafar ekintzaile talde baten esperientzia aztertu du Renoko Euskal Ikerketa Zentroan egindako tesian.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



Beti ari zara gauza berriak egiten. Zer da ikastarotik ikastarora, lan batetik bestera eramaten zaituena?

Nik uste dut momentuan jakin-mina pizten didanera jo izan dudala beti. Hala ere sententzia daukat beti aritu naizela gai beraren

inguruan, baina ikuspuntu desberdinetatik: komunikazioa eta kultura. Doktoregoan teknologia berrien erronkei buruz aritu nintzen, Euskal Kultura graduondoa egin nuen, gidogintza ere bai... Garai batean Euskaltzaindiaren arauak eta guzti erosten nituen! Komuni-

NORTASUN AGIRIA

Tania Arriaga (Iruñea, 1972ko abuztuaren 28an). Txantrea auzoan hazia. Kazetaritza ikasi zuen EHU. Master, graduondo eta ikastaro anitz egin ditu, "nik uste dut merkatuan dauden guztiak" dio irriz. *Mihiluze* telebista saioan aritu zen lanean bost urtez eta baita Nafarroako hainbat euskal irratitan ere. Gidoigilea eta film labur baten zuzendaria ere bada, *La espinita*. Azken lau urteotan Renon aritu da azaroaren hasieran aurkeztuko duen tesia egiten. #NASF ekintzaile nafarren esperientzia izan da aztergaia, edo Nafarroa zaharrera Amerikako Estatu Batuetako lan molde berrien eredia ekartzeko saiakera. Irailaren hasieraz geroztik, arratsaldez ikerlari eta goizez bi urteko haurtxoen irakaslea da Seaskako ikastola batean.

kazioan gustatzen zaidana da istoriotxoak kontatzea. Istoriotxoegilea izan nahi nuke. Eta zientzia fikzioa ere ikaragarri gustatzen zait. Elkartzean badituzu kultura, komunikazioa eta zientzia fikzioa, ateratzen dena komunikaziorako teknologia berrien arloa da, eta hori da orain gehien interesatzen zaidana.

Komunikabide askotxotan aritu izan zara.

Orio produkzioak etxearekin *Mibiluze* saioan aritu nintzen hasiera-hasieratik, bost urtez. Hori baino lehen Nafarroako zenbait herri komunikabide txikitan aritua nintzen: Esan-Erran, Belexe eta Aralar irratietan eta baita kolaboratzaile *Nabarra*, *Zazpika* eta *Artez* aldizkarietan. Dena den, nire lehenbiziko lana ETBko teletestuan izan zen. Albisteak itzul-tzen nituen eta formatura egokitu. Etengabe. Egunean 50bat albiste, txurroak bezala. Nahiko *freakya* izan zen. Hasieran polita zen, baina iritsi zen momentua non ikusten nuen jada ez nintzela ezer ikasten ari. Aspertzen nintzenez, lan egin bitartean dokumentalak ikusten hasi nintzen. Australiakoak bereziki.

Eta teletestua utzirik Australiara?

Bai, horixe. Aurreko urtean irabazitakoa, lan-



gabezia saria eta dena hartu, eta hara joan nintzen bidaiatzera eta jendea ezagutzera. Sei hilabete eman nituen han paseoan. Uste dut nire bizitzan hartu dudak erabaki onena izan dela. Bai neure burua, bai nire herria kanpotik begiratzeko aukera izan zen bidaiaria hura.

Eta handik Seattle-ra (AEB)? Zer dela eta?

Amodioagatik. Australian ezagututako bikotekidearekin joan nintzen. Han izan nintzen unibertsitatean ingelesa ikasten buru-belarri eta amodio historia bukatu zenean etxera itzuli nintzen, bihotza hautsirik, berriz zerotik hasteko, beti bezala. Hainbat fabriketan eta irratitan aritu nintzen lanean eta ondoren etorri zen telebistarako jauzia. Nire lehen lana *Ispiluen jauregian* telefilmekin izan zen, produkzio laguntzaile. Hor ikasi nuen nola egiten den film bat. Ondoren gidoigintza hasi nintzen ikasten. Dena dago Rubik kubo berean. *Euskal Kantuen Gana* saioan aritu eta gero *Mihiluzera* pasa nintzen. Izugarriko lana, baina oso polita. Lantaldea oso jatorria eta Kike Amonarriz eta Ilaski Serranorekin biziki gustura. Kike fenomeno bat da. Oso pertsona azkarra eta umila, badaki jendearekin bikain lan egiten... Nik izugarri maite dut. Aupa Kike!

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

943 453 588 · www.sigacus.com



Eta telebistatik Renorako aldaketa nola izan zen?

Ziklo hura bukatutzat eman nuen eta handik gutxira ahizpak bidali zidan Renoko Euskal Ikasketen Zentrorako beka baten informazioa. Baldintza guztiak betetzen nituela ikusita, proiektu bat aurkeztu nuen, onartu egin ninduten eta hara joan nintzen. Hasiera batean burmuinen ihesaz hitz egitea pentsatu nuen, baina lau urtez aritu behar banuen zerbaitean buru-belarri, nahiago nuen ikuspegi positibotik abiatzea. Zerbait berritzailea, eraldatzailea. Eta orduan topatu nuen hemen Iruñean halako talde arraroa, egia esanda, sare sozialetan oso sartuta zegoena, oso trebeak komunikazioaren teknologietan eta Estatu Batuetan aditutako diskurtsoa erabiltzen zutenak: #NASF taldea. Haren ikerketa antropologikoa da orain irakurriko dudan tesiaren mamia.

Zer da zehazki #NASF?

Ekintzaile nafarren talde bat, sorreran San Frantziskorekin harremana izan zutenak. Hortik izena. Talde aski berezia da. Bertan badira politikariak, kazetariak, enpresariak, ekintzaileak... Zantzu askorengatik, aldaketa bat zetorrela sumatu zuten 2008an. Enpresak beheraka hasten zirela ikusi zuten eta, modu berean, Nafarroako Gobernuak prestatutako

Disfuntzional

“Zure herria kanpotik begiratzen duzunean oharren zara noraino bizi izan garen giro disfuntzional batean: dena zen polizia, manifestazioak, atentatuak... Hemendik ateratzen zinenen pentsatzen zenuen, ‘baina zer egiten dute hemen larunbat arratsaldetan?’”.

Moderna plana ez zela ongi egokitzen egoera horri aurre egiteko. Gainera plan hori oso baztertzaila zen sortzetik eta kanpoan uzten zituen baita normalean UPNk aldamenen izaten zituenak ere, hau da, PP edo CDN alderdiko jendea, esate baterako. Santiago Cervera taldean dago eta Pablo Zalba PPko eurodiputatuarekin ere harremana dute. #NASFeko partaideak oso formakuntza handiko profesionalak dira. 2010erako, adibidez, talde honetako zenbait kidek gai hauen inguruko masterrak eginak zituzten jada. Gainera ongi kokatuta daude gizartean eta lehen mailako informazioa dute. Argi ikusten dute teknologia berriei etekina ateratzen ikasi behar dela lehenbailehen. Ongi erabiltzen jakitea ez da nahikoa. Hori oinarritzko kontua da. Bere garaian inprentak mundua aldatu zuen bezala, modu berean internetek izugarritzko aldaketak eragin ditu gugan, gure ekonomian, ikasteko moduan, gure harremanetan...

Kezka hauek bultzatuta, hamasei ekintzaile San Frantziskora joan ziren hango esperientziak eta giroa ezagutzera. Hango negozio berritzaileen inguruko narratiba, gauzak egiteko daukaten erdua ezagutu nahi zuten, hemen ekimen berri bat abiarazteko asmoz. Oso ideia ausarta da. Bisita asko egin zituzten

TANIA ARRIAGA

Silicon Valley: Facebook, Twitter, Stanford University... eta garrantzitsuena: Ideo. Diseinu enpresa bat da. Eraldaketarako estrategiak diseinatzeko eredu bat dute, Human Centered Design. Finean, metodo bat da, gauzak aurrera eramateko lantalde txikietan oinarritua. Maiz elkartzen dira enpresako kideak eta langileek bat egiten badute proiektuarekin, aurrera, bestela baztertzen da. Badute eredu bat, antza, oso dinamiko eta organiko eta hemen, nolabait, hori abian jarri nahi izan zuten, deus kobratu gabe. Horretarako “super astearteak” eta “super ostiralak” antolatzen dituzte, beste ekimen batzuen artean. Saio horietan aukera ematen diote edonori dituen negozio ideiak, proiektuak eta abar aurkezteko.

Krisiak ere ez du gehiegi lagunduko...

Moderna planak badu SODENA, Nafarroaren Garapenerako Sozietatea, eta horrek dirua du. Europatik eskuratu zuen kreditu handi bat eta hori ez du mugitu. Jende asko ari da ahaleginetan egoera berrietara egokitzeko eta gainera dirua bada, baina Gobernutik dena da trabak jartzea, dena zigilu eta bermeak eskatzea.

Nola begiratzen dituzte Gobernutik ekintzaile hauek?

Begi bazterrez. Sortzen ari den elite bateko kideak dira eta ezin da esan ez dietenik kasurik egiten. Bada nolabaiteko *feedbacka*, izan ere SODENAK egin izan ditu gauza batzuk haiekin.

Egun hemen oso eredu zaharkituak ditugu?

Ez naiz ausarten ikertu gabe zehazki esatera, baina haiek pentsatzen dute dena oso geldoa dela, instituzioen eta ekintzaileen artean ez dagoela komunikaziorik eta dena ikaragarri luzatzen dela proiektu berri bat abian jartzekoan. #NASFen aurkeztu diren proiektu gehienak plataforma digitalak dira eta merkatu hori oso-oso dinamiko da. Oso azkarra.

#NASF

“Talde honetako kideek Nafarroa aurrera eramateko asmoa dute gaur egungo kapitalismo motara azkar egokituz. Merkataria dira, kapitalistak. Ez da mugimendu antisistema, kontrakoa baizik. Aniztasuna indartu nahi dute, eskema zurrunik apurtuz”.

Kapitalismoari buelta berri bat ematean datza haien proposamena, beraz. Bat egiten duzu horrekin?

Euskal Herria kapitalismoan bizi izan da Europan zabaltzen hasi zenetik. Horregatik egokitzeko gara horren ongi. Ongi egokitutako kapitalistak gara euskaldunok. Ez dut uste erabakitzea denik kapitalismotik kanpo edo barruan jarraitzea, abiadura kontua dela iruditzen zait. Erabaki behar dugu zenbateko abiadura nahi eta ahal dugun, aurrera egiteko behar diren erremintak eta trebakuntzak geureganatzeko. Badakit hau Euskal Herrian esatea oso gogorra dela. “Kapitalismoa erre” irakurri dut horma batean honako bidean. Ongi, baina aldi berean kontuan hartu behar dugu erretzen den marihuana transgenikoa dela, adibidez. Gizarte osoa sistema kapitalistatik ateratzea oso zaila da, ezinezkoa ez esateagatik.

Ni ere desazkundearen alde nago. Eta horregatik, hain zuzen ere, iruditzen zait teknologiek laguntzen ahal digutela gauzak beste modu batez egiten. Ez daude kontrajarriak. Gainera kontsumoa ez da soilik gauzak erostea, kultura ere kontsumitzen da, informazioa, artea, pentsamendua... Salto hori egin behar da lehenbailehen eta Nafarroan hauek horretaz ohartu dira besteak baino azkarrago.

Zentzu horretan Espainian egotea oztopena da?

Nire ustez bai. Orain, adibidez, Europako laguntzak eta egiturazko fondoak eskuratze-ko erabiltzen den metodoa da RISD (*Regional Intelligence Smart Development*), hau da, eskualdeetako garapen adimentsua. Hor diotena da herrialdeak lotu beharko lirakekeela haien gisako herrialdeekin guztiek elkar laguntzeko. Adibidez guretzat, Euskal Herriarentzat, interesgarria izanen zen Pirinioez haraindiko lotura bat Akitaniarekin eta Katalunia aldera segituz, herrialde hauek berrikuntzan Espainia eta Frantziako hegoaldearekin alderatuta, askoz ere aurreratuagoak daudelako. Ekonomiari lotutako harremanak izanen ziren. Liga



inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidaiak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18. Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com

**Mendillorri**

Tania Arriagarekin Mendillorri gelditu gara. Iruñeko mendixka honetan egin zituzten 1895ean hirirako lehen ur biltegiak. Gaur egun Iruñerriko Mankomunitateak kudeatutako parke, lorategi eta erakusketa toki polita dena, aspaldidanik izan da iruindarrentzako pasealeku eta behatoki ederra. Hara joaten zen askotan Tania txikitan familiarekin meriendatzera, eta ni neu ere berdin, arratsalde pasa eta bidean pinu-zizak hartzera. Han elkartu gara, patata tortillarekin, iraganaz eta etorkizunaz hitz egiteko.

honetan zure mailan daudenekin jokatzera bezalakoa litzateke.

Beraz Nafarroa denbora galtzen ari da?

Tesiaren lehen atalean Moderna estrategiaren ikerketa kasik periodistiko egin dut, zer den jakiteko: fundazio pribatu bat da, hemengo estrategia guztia kudeatzen ari dena 2030 urtera arte. Izugarritzko egituratan sartuta gaude, ezer gutxi jakin gabe. Kazetariok normalean ez dugu aukerarik horren azterketa luze eta sakona egiteko, eta nik lan honetan bai izan dut. Nafarroako irudi erreala ikusteko parada izan dudala esan dezaket.

Eta zein da sentsazio nagusia? Txiringitismoa?

Txiringitismo mingarria, gainera, dirua egon badagoelako.

Zer ondorio atera dituzu pertsonalki ikerlan sakon honetatik?

Jakin-mina oso ona dela. Nahi ala ez, sistema batean bizi garela eta bai alde bai kontra, edo erdiko bidea hartzeko, gure errealitatea eza-

gutu behar dugula eta horretarako irakurri, hizkuntzak ikasi, asko jakin behar dela. Horretaz gain, nire kapitulu kutunenean aztertu dut zer nolako indarra duten hitzek. Errepikatzen diren esaldiek zer boterea duten. Irudika dezakeguna baino hamaika bider handiagoa.


Bestalde, polita izan da niretzat aurreiritziak gainditu eta normalki egonen ez nintzatekeen jendearekin elkartzera, entzutea eta haiengandik ikastea. Elkarrekin hitz egiteagatik ez da deus galtzen. Gainera Nafarroak jada ez du ia zer galdu, hondoa jota dago eta!

AEBetara itzuliko zara azaroan tesiaren aurkezpena egitera. Gustura izan zara han lau urte hauetan, ezta?

Bai. Han aniztasuna dago eta jendeak bere kulturen ezaugarriak partekatzen ditu bestekin. AEBen oso zalea naiz eta gainera oso ongi tratatu naute beti.

Eta ondoren?

Ez dakit bizitzak zer ekarriko didan. Beka batekin egon naiz lau urte Renon. Diru publikoa zen eta asko ikasi dut metodoetan eta alor askotan. Orain sentitzen dut gizarteari hori guztia eskaini beharko niokeela. ■



Txipiroiak plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Murrizketarik ez egitea ez da nahikoa, beharra handitzen denean

Bego Arrieta Jauregi dut izena, 56 urte ditut, eta 38 dira Gasteizen bizi naizela. 16 eta 18 urteko bi neska-mutilen ama naiz. Iskemia bat tarteko, semeak behar bereziak ditu. Borrokatzera behartuta gaudela jakinda, zenbait guraso elkartu eta plataforma bat sortu dugu, gure haurrek euren beharretara egokitutako hezkuntza jaso dezaten.



JAIO ZENEAN, semea oxigeno gabe geratu zen, eta ondorioz, tetraplegikoa da eta iskemia bat du. Ez du hitz egiten, baina bada komunikatzeko gai. Erakunde publikoek diru-laguntzak eta bestelako erraztasunak ematen dituzten arren, lehenengo urteak oso gogorak dira, inork ez baitzitu baliabide horien berri ematen. Zure kabuz, eta mila ate jota, informazioa bildu behar duzu lehenengo, eta horren ostean, borrokatu dagozkizun laguntzak eskuratzeko. Lan horri, gainera, zure haurrari gertatu zaiona onartzeak dakarren mina gehitu behar zaio.

Lehenengo urteak eta gero, egokitu zarenean ere, etengabeko borroka da behar bereziak dituen senide bat izatea. Gainera, normala denez, kezka edo ardura horri jende gehienak ere badituenak gehitu behar zaizkio: lan falta, soldata gero eta kaskarragoak...

Hezkuntzara etorrira, aurretik beste eskola batzuetan integratuta egon bada ere, EAEko hezkuntza bereziko eskola publiko bakarrera joaten da semea orain. Egia esan, bertan ez dugu murrizketarik nabaritu, eta orain dela gutxi, berrikuntza lanak ere egin dituzte. Dena dela, behar bereziko seme-alabak beste ikastetxeetan dituzten guraso asko hasiak dira murrizketen ondorioak nabaritzen. Batez ere, hezkuntza-laguntzaile espezialisten eta logopeden kopuruak egin du behera. Lehen zortzi ikasleren ardura zuenak orain hamarrekin aritu behar du, eta gainera hainbat hezitzailek eskola batetik bestera joaten pasa behar dute

“Batez ere, hezkuntza-laguntzaile espezialisten eta logopeden kopuruak egin du behera. Lehen zortzi ikasleren ardura zuenak orain hamarrekin aritu behar du”.

eguna. Azken finean, profesional horiek ere pertsonak direnez, presio eta eginkizun gehiegi izateak ondorioak ditu euren lanaren kalitatean, nahiz eta asmo onez egindako lana izan. Eta zuzenean murrizketarik egin ez arren ere, lehen orain baino haur gutxiago baldin bazeuden behar bereziak dituztenak, aurrekontua eta langile kopurua mantentzea ez da nahikoa.

Pasa den ekainean, hasi berri den ikasturte honetan hezkuntza-laguntzaile espezialisten kopurua are gehiago murriztuko zutela zabaldu zen gurasoen artean. Mugikor bidez hainbat mezu trukatu genituen, eta azkenean, Arabako 60 familia bildu ginen egitura bat sortu eta gure eskubideak borrokatzeko. Horren emaitza da Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen senitartekoen plataforma.

Plataformako familien artean, batzuk eskola publikoaren aldekoak gara, beste batzuk ez horrenbeste; nik argi dut gure semeak euskaraz ikasi behar duela, baina hori ez da lehentasuna beste zenbaitentzat. Helburu partekatua badugu, haatik: gu geu izatea gure ahotsa eta negoziaketarako ordezkaritza, eta ez guk hautatu ez dugun elkarte edo bestelako bitartekari bat. Plataformari esker, Eusko Jaurlaritzarekin izan gara harremanetan, eta entzuteko prest dira behintzat. Eskolara itzuli eta gabeziak identifikatzera baditugu, salatu eta eskaerak egiteko esan digute. Ikasturtea hasi baino ez da egin, ikusteke dago zer gertatuko den. ■



EDERLEZI PASTORALA



IRAILAK 28 BILBO
ARRIAGA ANTZOKIA-19:00etan



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Sarrerak:

www.teatroarriaga.com
944310310
Kutxabank



**June
Fernández**

◆
KAZETARIA

Iribarreak

TANIA SÁNCHEZ Izquierda Unidako (IU) kidea bere alderdi politikoa eta Podemosen arteko harremanaren inguruko galdera bati erantzuten ari zen teleaio batean. Eduardo Inda eskumako kazetariak hauxe galdetu zion: “Baina zu zergatik zaude beti hain haserre?”. Sánchezek segituan erantzun zion: “Badakit kostatzen zaizula gai serioen inguruan seriotasunez hitz egiteko gai diren emakumeak badaudela ulertzea, baina ohitzen joan behar duzu, XXI. mendean gaudelako eta emakumeok ez dugulako irribarre egiten zure zerbitzura jartzeko edota zure gusturako”. Hurrengo 48 orduetan 27.600 pertsonen partekatu zuten bideo hori Facebooken bidez.

Dudarik gabe politikari azkarra eta komunikatzaile ona dugu Tania Sánchez. Gaztea eta ederra ere bada, zaila da horretan ez erreparatzea (besteak beste, halako teleaioetan emakumezko eta gizonezko gonbidatuen edertasunaren arteko kon-

Jendaurreko lanpostuetan askotan gertatu zait gizon ezezagun bat hurbiltzea “ez izan hain serioa, irribarre egin” esateko. Gizonezko lankideek ez zuten inoiz jaso irribarre iraunkorrarekin lan egiteko exijentziarik

trastea nabaria eta susmagarria baita). XXI. mendean, gizon matxistei asko kostatzen zaie emakume gazte eta lirainekiko errespetua sentitzea. Emakume adimentsu batekin eztabaidatu behar dutenean, halako esaldiak maiz erabiltzen dituzte emakumea “bere lekuan” jartzeko asmoarekin. Nolabait Indak esan nahi ziona hauxe zen: “Ez ahaztu emakume polit bat besterik ez zarela eta zure papera telebista apaintzea dela”. Emakumeen argitasunak matxistei zirkuitulaburra eragiten diete eta erreazioa, misoginia zaharkitua erabiliz, emakumea neutralizatzen saiatzea da. Estrategia kaxkarra, alegia, emakume azkarra, indargabe geratu orde, matxistarren zekenkeria patetikoa agerian uzteko gai baita.


Halakoak maiz gertatzen dira politikan. Gogoratu Europako hauteskundeetarako konpainian PPko hautagaiak, Miguel Arias Cañetek, Elena Valenciano PSOEko hautagaiarekin telebistan eztabaidatu ondoren, esandakoa: “Zaila da emakume batekin eztabaidatzea: nagusitasun intelektuala adierazten baduzu edo estutzen baduzu, matxista deituko dizute”.

Egunkari batean erreportaje bat idatzituen emakume politikariek bizi duten matxismoari buruz. Valencianok esan zidan gure gizarteko hiru botere esparru nagusien artean —erlijiosoa, ekonomikoa eta politikoa— politikoa ikusi dutela gizonen euren hegemonia mehatxatuen. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu matxisten astakeria horiek, eta bataila galduta dutelako amorratuak daudela ospatu. Euren galdetu behar genieke zergatik dauden emakume azkarrekin haserre.

Baina “zergatik zaude beti haserre?” komentario horrek oroitzapen ugari ere ekarri zizkidan. Behin gauez etxera bakarrik bueltatzen ari nintzela, gizonezko kale-garbitzaile batek esan zidan: “Iribarre egin, neska, politagoa zaude”. Sare sozialetan egoera hori kontatu eta gizon askok esajeratua izatea leporatu zidaten, kale-garbitzaileak jatorra zirudiela eta horrek sexismoarekin loturarik ez zuela. Jendaurreko lanpostuetan askotan gertatu zait gizon ezezagun bat hurbiltzea “ez izan hain serioa, irribarre egin” esateko. Gizonezko lankideek ez zuten inoiz jaso irribarre iraunkorrarekin lan egiteko exijentziarik.

Pierre Bordieu soziologoak ondo azaltzen du: “Gizarte patriarkalean emakumeek objektu sinbolikoaren estatusa bete behar dute, besteen begirada etengabe sentituz. Horren ondorioa segurtasun falta eta beti erakargarriak, lirainak eta erabilgarriak izateko grina dago”. XXI. mendean, baina, gero eta gehiago gara, komunikabideetan, politikan zein kalean, agindu horren kontra ozen egiten dugun emakumeak, labainkada matxistak berdintasunaren aldeko bumeran bihurtuz. ■







DANI BLANCO

Ainhoa Larrañaga

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ♦

Legitimitate bikoitza

EUSKAL HERRIAK Espainiako Estatuarekin daukan gatazka hiru erpinetatik aztertu daiteke; elkarrekiko harreman estua duten hiru erpin. Erpin historikoa, politikoa eta juridikoa. Erpin historikoa eta politikoa (demokratikoa) dauka legitimitatea herri honen burujabetza edo autodeterminazio nahiak. Goazen aletzera:

Erpin historikoa eta baieztapen bat: euskal herri honek Estatu bat sortu zuen, Nafarroako Erreinua, eta hura mendeetan existitu izana erabakigarria izan zen gero nazio bihurtzeko. Konkistatu egin zuten 1200. urtean, 1512-1523ekoetan, eta indarrez hartu 1620an. Ondoren, herri hau okupatu eta kolonizatu egin zuten. Baina oraindik ez du etsiak hartu.

Erpin demokratikoa eta baieztapen bat: plano politikoan indarra hartzen ari da erabakitzeko eskubidea. Euskal Herriaren zati handi batek erakutsi du erabaki nahi duela, Kataluniako bideari jarraiki. *Demos*-aren zati batek, konkistaren eraginez, *demos* zabalago baten parte denak azaldu du bere etorkizuna erabaki nahi duela. Demokraziak –baldin eta demokraziarik baldin bada– birdefinitze bat eskatzen du. Espainiar ordenamenduak diseinatutako demokrazia ereduak ez ditu gizartearen zati handi baten nahi eta beharrak asetzen.

Demokraziak birdefinitze bat eskatzen du. Espainiar ordenamenduak diseinatutako demokrazia ereduak ez ditu gizartearen zati handi baten nahi eta beharrak asetzen

Erpin juridikoa eta baieztapen bat: Espainiako Konstituzioari egun Auzitegi Konstituzionalak egiten dion interpretazioak ez du erabakitzeko eskubiderik onartzen. Ez, interpretazio bide hori existitzen ez delako, baizki eta egungo borondate politikoaren isla den Auzitegi Konstituzionalak ez duelako beste begi batzuekin Konstituzioa irakurri nahi. Demokrazian sakontzea eskatzen du honek eta Espainia ariketa hori egitetik oso urrun dago; ez zaio interesatzen gainera.

Joseba Gabilondoren berbak hartuko ditut: “Euskal historia subjektu ezkor baten inguruan idatzi behar da: euskal subjektu subordinatua definitzen duten zartadura eta bortizkeriako trauma. Gure historia historia subalternoa izan da, ezinaren historia negatiboa ezezka bakarrik konta daitekeena eta beti estatu frantsesaren eta espainiarraren gehiegitasuna ere badena, era positi-

bo batean estatuaren hizkuntzan bakarrik idatz daitekeena, historia bera kontatzeari uko eginez”.

Historiak egiten gaitu, beraz, eutsi behar diogu garenari. Jakin behar dugu bi estatu inperialisten menpe dagoen herria izanik, ateratzeko estrategia ausartak garatu behar ditugula. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

N-340

UDA HONETAN ikasi dut Cadiz eta Bartzelona lotzen dituen errepidea penintsulako luzeena dela (ia 1250 kilometro ditu). Atlantikotik Mediterraneora doan errepide horretan omen dago Estatu bide-tarterik arriskutsuena (Alacant inguruan). Dena den, estatistiketan agertzen ez den beste kontu batek ekarri nau lerro hauetara: (errepideko) prostituzioa.

Deigarria da zenbat *club* dauden errepidearen bi aldeetan. Konparaziorako, errazago eta ugariago topatzen dira halakoak gasolindegia baino. Batzuk, gainera, izugarri handiak dira, nire begietarako behin-

tzat ezohikoak. Udazkeneko ekinozioa ailegatu baino lehen gauza berri bat ikusi dut Castellon iparraldean: prostitutak errepidearen ezker-eskuin eguzkitako baten azpian, bero-galdatatik libratu eta bezeroak lortu nahian, banaka nahiz binaka jarritan aulkietan.

N-340 errepidea bezain luzea eta korapilatsua da prostituzioaren soka. Iruditzen zait, batzuetan errepide horretan gertatzen den bezala, ezkutuko lanbiderik zaharrenean suertatzen diren istripuak ez direla istripu soil, baizik eta sistema homologatu baten ondorio. ■



DANI BLANCO



Gorka Bereziartua Mitxelena

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Pablo Berasteguik ez daki euskaraz, *but who cares?*

AURKEZTU DUTE Pablo Berastegui Donostia 2016ko zuzendari orokorra eta mundu guztiak sine-tsi duenean hiriburu kulturalaren kontuekin lasaitasun pixka bat izango genuela, datu inportante bat hasi da zabaltzen sare soziale-tan.

Albisteak hainbat twitterlari-
ren erantzuna ekarri du:

@JosebaAlvarez: “Aho batez izendatu den Donostia 2016ko zuzendari berria Pablo Berasteguik ez daki euskaraz eta, beraz, ez du euskal kultura zuzenean ezagutzen. Lotsal!”

@Kaltzakorta: “Donostia 2016ko zuzendariak euskaraz jakin ez, eta oraindik ere “egokiena” bera dela dio Donostiako alkateak”.

@Umerez: “Aho bete hortz utzi nau Donostia 2016ko zuzendari berriak euskaraz ez dakielako jakiteak”.

@Batistezeiza: “Euskaraz ez dakien pertsona, @DSS2016-rako zuzendari berria. Ahobetez, eta udalaren oniritziarekin. *Toma Ya!*”.

@EiTBKultura: “Pablo Berastegui Donostia 2016ko zuzendari orokor berriak proiektuan konfiantza berreskuratu behar dela nabarmendu du bere aurkezpe-nean”.

Beraz, badugu istilua berriz ere: gaiaren larritasuna ikusirik, orain arte 2016ari markajea egi-ten aritu diren interes taldeek eta hedabideek lepora salto egingo diote Fundazioaren Patronatuari. Seguru.

Pentsatzekoa da, bere garaian Itziar Nogerasek ingelesez ez zekiela gorritz azpimarratu zuten gisa berean hasiko direla espantuka gure euskara maiteak ez duela-

ko bonberoen egoitza zaharreko *master and commander* berriaren mingainik probatuko.

Edo akaso ez. Akaso inporta duena ingelesez jakitea da eta *who cares* Berasteguiaren gaitasun linguistikoko faltaz. Lauzpabost euskaltzaleri *–fucking basque talibans–* baino ez zaie irudituko, dema-gun, blog batean lerro batzuk alferrik botatzeko moduko gaia.

Itziar Nogerasek ingelesez ez zekiela gorritz azpimarratu zuten gisa berean hasiko direla espantuka gure euskara maiteak ez duelako bonberoen egoitza zaharreko “master and commander” berriaren mingainik probatuko

Ondorengo erreakzioak

Sortu alderdiko bozeramaile Hasier Arraizek “akats” gisa definitu du Berasteguik euskaraz ez jakitea.

Gaiaz galdetu diote Berastegui berari eta *El Mundok* jaso duenez, zuzendari berriak adierazi du “eskuzabalak eta irekiak” izan behar dugula “Euskadi naturaltasunez European egon dadin”.

Donostiako Udalak *El Diario Vasco*ri adierazi dionez, euskarak 2016ko proiektuaren ardatz izaten segituko du. Udalak gogora ekarri du kultur hiriburuaren bulegoan langile guztiak dakitela euskaraz, aholkulariren batek salbu. ■



BERTSO BERRIAK

Eskoziaren gaztaka



Jon Maia Soria



Doinua: Hamalau heriotzena.

Duela hiru urte zabaldu zen Gazta esanez: mundu bolak zati asko dauzka. Ez garela ardiak, ez dugu nahi bazka... eta hartuz geroztik artzainaren kasta “gastaka” itxura hartzen ari da gatazka.

Eskoziarengan dago munduko begia baina gazta honek ere nola ilargia soilik bistatu arren argidun erdia badu beste erdi bat, beste aurpegia hemen falta duguna: Londres, alegia.

Eskoziaren herritarrek behar dute hauta Britainia Handiaren *In-a* edo *out-a* hautatzea da gako zer hauta da mauka orain ukapenean “europeizauta” jarraitu nahi duenak zailagoa dauka. ■



JON GARAÑO ETA JOSE MARI GOENAGA

«Metaforikoak bai, baina ez dugu kriptikoak izan nahi»

Lore-sorta anonimoa jasoko du Anek, daraman bizimodu grisa bat-batean aztoratuz. Horrela hasten da *Loreak*, Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzenduriko bigarren filma (80 egunean estreinatu zuten 2010ean). Urrezko Maskorra lortzeko lehiatuko da Donostiako Zinemaldian, eta Toronto, Londres, Zürich eta beste hainbat jaialditarako ere hautatu dute dagoeneko. Urrian iritsiko da areto komertzialetara.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkia: Dani Blanco

Ane, Tere eta Lurdes; hiru emakumek daramate filmeko pisua. Ez da ohikoena.

Jose Mari Goenaga: Istorioak berak eskatu digu horrela izatea, ez da zerbait kontzientea izan. Istorioaren arabera eraikitako pertsonaiak emakumeetan ikusten genituen irudikatua.

Bilakaera bat duten pertsonaia sakonak dira. Nola zizelkatzen dituzue pertsonaiak?

JM. Goenaga: Kasu honetan, hein handi batean tramaren bidez joan dira itxura hartzen. Neurtuta dago trama, gai jakin batzuk jorratu nahi izan ditugu, eta horien arabera joan gara pertsonaiak irudikatzen.

Jon Garaño: Behin pelikula egituratuta, Ane eta Tereren profilak erraz etorri ziren. Aneren izarra asko baldintzatzen du gertatzen zaionak, eta Tereren ezaugarriak ere argi genituen. Lurdesen pertsonaiaekin zalantza gehiago izan genituen, eta kasu honetan Itziar Ituño [aktoreak] ematen zigunera egokitu genuen pertsonaia.

JM. Goenaga: Aktoreak berak informazioa ematen dizulako, eta gidoiak dioenean harreman txarra dagoela bi pertsonaien artean, fisikoki ere hori nabaritzea nahi dugu. Datu guztiak ez dira hitzez adierazi, baina nahi duenak ikus ditzake.

J. Garaño: Azken batean, pertsonaia bakoitzaren fitxa landuak egiten ditugu, nahiz eta gero xehetasun asko erori egiten diren. Lehengo bertsioetik 50 minutu kendu ditugu, erritmoa ere mantendu behar delako, erakarri izan behar duelako filmak... eta sakrifizioak beharrezkoak dira.

“Ahaztu nahi zuenak gogoratu dezake, eta gogoratu nahi zuenak aldiz, ahaztu. Gure buruak, behartu arren, bere bidea egingu du”

Jon Garaño

Muntaketak zeresana izan du orduan.

JM. Goenaga: Gidoiaren esentzia pelikulan egotea da inportanteena, eta paradoxikoa badi-rudi ere, eszenak kenduta edo horien ordena aldatuta, esentzia berreskuratu dezakezu. Muntaketan nolabait berridatzi egin dugu gidoia.

J. Garaño: Istorioaren egitura bereziak [ez da kontakizun kronologikoa] aukera eman digu jolasteko eta horretaz aprobetxatu gara. Narratiboki denetik probatu dugu muntaketan! Eta hala, ordena eta sekuentziak aldatuta, hasierako ideia bueltatzea lortu dugu. Gogorra izan da, baina polita, sormen lan handia eskatu digulako.

JM. Goenaga: Puzzlearen piezak moztuta genekartzen errodajetik, eta pieza horiek nola jarri izan da gakoa. Azkenerako, ispilu joko bat osatu dugu pelikulan: bi egitura narratibo nagusietan, elementu berdinekin jolastu dugu, baina modu ezberdinean ordenatuta.

Loreak arma boteretsuak izan daitezke...

JM. Goenaga: Gure egunerokoa elementu berri bat sartzen denean, begiradaren baitan dago sortzen duen erreakzioa: mehatxua batzuegan, ilusioa bestetuegan... Elementuak berak ez du esanahirik, baina pertsonaia bakoitzak, bizi duen testuinguruagatik edo dena delakoagatik, bere sentimenduak eta beldurrak pintzen ditu elementu horre-

“Denetik probatu dugu muntaketan! Eta hala, ordena eta sekuentziak aldatuta, hasierako ideia bueltatzea lortu dugu. Gogorra izan da, baina polita, sormen lan handia eskatu digulako”, dio Garaño (argazkian, eskuinekoa).



tan. Pelikulan, mihise zuria dira loreak, norberak esanahiz betetzeko zain.

Norbait gogoratzeko modua ere badira loreak. Izan ere, memoria eta ahanzturaren arteko talka da pelikularen gai nagusia.

J. Garaño: Bai, loreen bidez bizirik mantentzen duzu pertsona zure baitan, eta ohitura hori oso zabaldua dago gurean, baina jende batek nahiago du ahaztu, eta jarrera hori ulertzeko zailtasun handiagoak ditugu batzuetan. Egoera beraren aurrean jokatzeko modu ugari egon daitezkeela planteatzen dugu, eta pelikulan jokabide horiek talka egingo dute. Hirugarren ikuspegi bat ere sartu dugu, bizitu ez duen oroitzapena gogoratu edo hobe esanda berridatzi nahi duen jendea. Jarrera horietakoren batean tematu arren, modu batean hasi eta beste batean buka daitezkeela adierazi nahi izan dugu: ahaztu nahi zuenak gogoratu dezake, eta gogoratu nahi zuenak aldiz, ahaztu. Gure buruak, behartu arren, bere bidea egingo du.

Estilo eta estetika zaindua darabilzue. Xehetasunek egiten dute pelikula bat berezi?

JM. Goenaga: Egia esan, pelikula honetan gure erronketako bat izan da estetika, errealtazio eta atmosfera aldetik jauzi bat ematea, sekuentzi bakoitzeko planoek esanahia izatea, muntaketa garbia egitea, enkoaraketa soilak lortzea... Simetrikotasunarekin ere jokatu dugu, sentsazio eta efektu jakin bat lortu aldera.

J. Garaño: Simetrikotasunak normaltasun anormal bat sorrarazten du, egoera normalak dira, baina berezi ikusten dira, eta horrekin jokatu nahi izan dugu. Berdin off ahotsarekin, batzuetan pertsonaiak sekuentzietatik kanpo daude eta ikusleak irudikatu egin behar ditu hainbat erreakzio, off-ean egoteak, ez egoteak, baduelako esanahirik. Pertsonaiak mugitzen diren espazioei ere arreta jarri diegu... Gauza ugari zaindu ditugu, batez ere guretzat garrantzitsuak direlako barne koherentzia mantentzeko, segurtasuna ematen digu eta emaitzan ere intentzio bat dagoela ikus daiteke, nahiz eta beti agian ez ulertu.

Sinbologiarekin ere jokatu duzue.

J. Garaño: Bai, gero jendeak zein garrantzi ematen dion beste kontu bat da, baina laguntzen digu gure diskurtsoari eta kontaktzen ari garengari sendotasuna ematen.

JM. Goenaga: Dena den, metaforikoak bai, baina ez dugu kriptikoak izan nahi. Baten batek metaforaren bat ez du ulertuko, baina trama berdin jarrai daiteke.

J. Garaño: Jolasa da azkenean. Ikusle mota bati gustatzen zaio halakoak "harrapatzea", baina ez dira gure pelikulen oinarria.

Ardura

Jose Mari Goenagaren hitzetan, "pelikulari lotutako titularra da Sail Ofizialean euskarazko film bat ari dela lehian, eta alde horretatik, momentu honetan, bada nolabait euskararen ordezkari zineman. Ardura sentitzen dut, baina euskaraz ekoiztako beste gauza asko dago, jakina. Antzera gertatu zaigu 80 eguneanekin: nazioarteko jaialdian eman dutenean, beti galdetu digute hizkuntza, eta euskararen eta Euskal Herriaren berri ematea egokitu zaigu atzerrian. Instituzioetatik halako lanak bultzatzea ere horrela ulertzen dut nik, kultura baten leiho direlako".

Estetika eta joko horien guztien bidez, edertasuna bilatzen duzue zuen zineman?

JM. Goenaga: Bai, pertsonaiek puntu naturalista bat dute, baina aldi berean kontatzeko forman estetika jakin bat bilatu dugu, eta nik uste ikusleak hori nabaritutako duela. Lorendea, adibidez, pelikulako istorioak jaiotzen diren tokia, espazio polita izatea nahi genuen, argitsua, eta momentu batzuetan preziosismoa ere bilatu dugu irudietan, artifizioa. Berdin musikan.

J. Garaño: Edo esaterako, protagonistaren lantoki ilun eta itsusia pixkanaka edertzeak eta argitzeak, protagonistaren barne bilakaera irudikatzeak balio izan digu.

Sentsibilitatea behar da, zine zuzendari izateko?

J. Garaño: Zuzendariaren izaera ikusten da pelikuletan, gure luzapen moduko bat dira, eta film honetan ere, detaileetan-eta, nabaria da gure izaera. Zentzu horretan, pertsona bezala izan dezakegun sentsibilitatea pelikulan islatzea normala iruditzen zait, gidoi beraren gainean zuzendari batek edo besteak egiten duena oso bestelakoa delako.

Tonu ugari uztartzen ditu filmak: drama, giro intimista, suspentse ukitua... Aberasgarriagoa da genero nahasketa?

J. Garaño: Autoan goazela errepidean ikusten ditugun loreak dira pelikularako ideien sorburua, eta lore horiek ikusita, ezinbestean drama datorkigu burura, baina misteriotik ere badu zer edo zer, nor eta zergatik jartzen ditu lore horiek? Zer gertatu zen? Guk ere hori eraman nahi izan dugu filmara: drama, suspentsea, misterioa... Horregatik egiten zitzaigun baita ere interesgarria istorio hau.

JM. Goenaga: Gidoian eta grabatu genuen materialean, komedia ere bazegoen, eta emaitzan zertxobait geratu da, baina apenas. Istorioak, azken finean, bota egiten du bere sentitzen ez duena, eta hori muntaketan asko gertatu zaigu: sekuentziak kentzen hasi, eta pentsatzen genuena baino serioagoa geratu zaigu, sekuentzia horiek jada ez zituelako onartzen filmak, puntu batetik aurrera istorioak bizitza propioa hartzen baitu.

J. Garaño: Gero eta gehiago sinesten dut pelikula hitz egiten dizula, eta zuk entzun egin behar diozula. Batzuetan ez zara gai ulertzeko zer esaten dizun eta gauzak ez dira ondo ateratzen, baina hobe da kasu egitea, eta horregatik, sekuentzia oso politak kentzera behartuta ikusi dugu gure burua, lekurik ez zeukatelako.

Aurreko pelikularen estiloa, lantaldea... mantendu duzue, baina zer ikasi zenuten orduan, oraingoan hobetu duzue?

J. Garaño: Hasieratik adierazi nion Jose Mariri

“Pertsonaiek puntu naturalista bat dute, baina aldi berean kontatzeko forman estetika jakin bat bilatu dugu; momentu batzuetan preziosismoa ere bilatu dugu irudietan, artifizioa. Berdin musikan”

Jose Mari Goenaga



bi gauza oso inportante zaindu behar genituela: batetik, lan egiteko modua: errodajeen batik bat gutxiago diskutitu behar genuela gure artean, eta pixka bat gutxienez hobetu dugu, kar, kar, kar. Eta bestetik, istorioa kontatzerako orduan formalki aurrerapausoa izan behar zuela aurrekoarekiko eta arrisku handiagoak hartu behar genituela. Bi asmoak hein handi batean bete ditugu, nahiz eta bietan ere asko dugun hobetzeko. Ez naiz damutzen *80 egunean* estilo klasikoaz, gainera lehenengo pelikula zen, baina uste dut zenbait gauza beste era batera egin genitzakeela. Era berean, gauza batzuetan galdu egin dugu. *80 egunean* gustuko duen publiko bati ez zaio hau gustatuko, ezberdinak direlako, eta jende batek asko defendatu du *80 egunean*, bere egin du filma, eta hori ez da erraza, ez dakigu *Loreakek* hori lortuko duen...



Zein da zuen nahia bigarren film honekin?

J. Garaño: Esan bezala, *80 egunean*ek lortu du hainbatek bere egitea, eta gainera asko bidaia-tu du nazioartean, baina Euskal Herrian ez da hain ezaguna, jende askok ez du ezagutu ere egiten, eta *Loreakekin* hori aldatu nahi genuke, hemen ere ikusi dadila.

JM. Goenaga: Zine aretotik ateratzean joko eman dezakeen pelikula da, gogoetatzen jarrita osatzen joan zaitezkeen pelikula, eta gustatuko litzaidake ikusleak ariketa hori egitea.

J. Garaño: Bai, inpresioa daukagu jendeari pelikula gehiago gustatzen zaiola hurrengo egunean! Baina horretarako hurrengo egunean pelikulan pentsatzen jarri behar zara...



Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatzeak eta euskal zinemari kalitatea aitortzeak bultzada ekonomikoa emango al dio bertako zinemagintzari?

J. Garaño: Lagundu dezakeela eta lagundu beharko lukeela pentsatu nahi dut. Gureaz gain, Euskal Herrian egindako beste hainbat film eskainiko dituzte Zinemaldian, eta hori zerbaiten seinale da. Zinemaldiak ez ditu ematen hemengoak izateagatik, ez baitago prest nazioartean duen prestigioa galtzeko, eta are gehiago, nik esango nuke gehiago exijitzen digula guri hemengoak izateagatik, euren irudia jokoan dagoelako. Alde horretatik, bermea da euskal industriarentzat. ■



Ikusmira sortu duten hiru filmez, Muñoz eta Bengoetxea

Lasa eta Zabala, Negoziatzailea eta Loreak. Interesa piztu duten eta Donostiako Zinemaldian ikusiko ditugun hiru film horietan elkarrekin aritu dira Ane Muñoz Mitxelena eta Josean Bengoetxea, script lanetan lehena eta aktore moduan bigarrena. Hori gutxi ez eta Zinemaldian estreinatuko dituzten beste obra banatan ere hartu dute parte: *Zarautzen erosi zuen* laburrean Muñozek, *Los tontos y los estúpidos* lanean Bengoetxeak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



Ane Muñoz eta Josean Bengoetxea, parte hartu duten filmetako erroldaje une bitan.

Lasa eta Zabala, errelato mingarria

“Halako errebisioek errespetu handia ematen didate eta nondik kontatzen den ikustea interesatzen zait. Beste kasu batzuetan, gai bera ukitu denean, ezezkoa eman izan dut, gaiztoak eta onak baino ez dauden eta ia denek angulak jaten dituzten Euskal Herria irudikatzeke ez nagoelako prest. Oraingoan ordea, gidoia irakurri eta argi ikusi nuen, dramatiko ki eta narratiboki ere oso ondo dago kontatuta eta protagonistek bizi izan zuten sufrimendu hori guztia ondo islatuta ikusi dut gidoian eta erroldajea”, kontatu digu Josean Bengoetxea aktoreak. Pablo Malo zuzendariak gertakaria gogor eta ezer leundu gabe filmatzea aukeratu duela gaineratu du Ane Muñozek, gordin, eta halaxe bizi izan du berak ere erroldajea: “Eszena mingarriak egon dira eta bortizkeria hori transmititu da filmaketan, oso

gogorra izan da, hunkituta egon naiz momentu askotan, mina ere sentitu dut eta seinale ona da, kamerak eta fokuak aurrean izanda hunkitu banaiz, emaitzan transmitituko dela esan nahi baitu horrek. Kezka neukan, historiari nola helduko zitzaion, baina oso ondo dokumentatutako lana da, kontu handiz egina, senideekin ere bildu da lantaldea, eta erroldajea ikustera azaldu direnek, gertaturikoa gertutik bizi izan dutenek (Lasa eta Zabalaren arrebak, Iñigo Iruin, Pako Etxeberria...) ongi ari ginela esan digute, berme garrantzitsua da hori”.

Zuzendaria ere bada Muñoz, baina script moduan aritu da pelikula hauetan. Hots, erroldajea akatsik egon ez dadin, erne eta xehetasunen gainean egotea da bere egitekoa, plano bakoitza identifikatu eta muntaia bidaltzea, eszena bakoitzaren aurretik eta atzetik zer



Ezkerrean, goitik behera, *Lasa eta Zabala* (Pablo Malo) eta *Negoziatzailea* (Borja Cobeaga). Eskuinean, goitik behera, *Loreak* (Jon Garaño, Jose Mari Goenaga), *Zarautzen erosi zuen* (Aitor Arregi), eta *Los tontos y los estúpidos* (Roberto Castón).

dagoen kontuan hartzea. Laburrean, erroda-jean memoria eta koherentzia zaintzea, eta aktoreei eta zuzendariari laguntzea, aholkua behar izanez gero.

Bengoetxeak berriz, film honetan bigarren mailako rol bat antzetzteaz gain, aurretik sekula egin gabeko lana bete behar izan du: Jon Anza (*Lasa*) eta Christian Merchan (*Zabala*) aktoreen entrenatzaile aritu da: “Pelikulan bi protagonistek duten garapena intentsua da; bi abenturero dira hasieran, tortura jasaten duten bi gazte ondoren, eta heriotza aurrez aurre ikusten duten bi lagun azkenerako. Eszena gogorak ere badira, Pablok argi zeukalako ezin zela azaleko irudi bat eman, torturak azaldu behar zirela, eta hori aktoreekin lantzea zaila da, ez dugulako gure burua egoera horretan ikusi, baina gela batean sartu nituen eta emozioak aurkitzen lagundu nien, norberak dituen tabuak askatzen”.

Aurrekariak ikusita, pelikulak polemika piztuko ote duen galdetu diegu. Gertatutakorekiko distantzia dagoela eta beste garai batzuk direla erantzun digute. Ideologia politikoak baldintzatutako kritikak egongo diren

arren, gaiak pelikula ez jatea eta filma bera gailentzea espero du Bengoetxeak. Historian nahasitako jende ugari oraindik bizirik dagoela gogoratu du Muñozek, “bizirik eta aske, eta beldurrik gabe kontaturiko istorioa da. Dena den, polemika baino gehiago, mina eta amorrua eragingo du, gertakariengatik, baina min hori beharrezkoa da”. Hala ere, bertsio bat dela –ez dokumentala– azpimarratu dute biek, fikzioa.

“Hunkituta egon naiz *Lasa eta Zabala*ren filmaketako une askotan, mina ere sentitu dut eta seinale ona da hori”

Ane Muñoz Mitxelena, scripta

Negoziatzailea, umore finlandiarra euskal gatazkan

*Lasa eta Zabala*k baino polemika handiagoa sor dezake Borja Cobeagaren *Negoziatzailea* lanak, Bengoetxearen ustez, “batez ere aurreiritzi asko dauzkagulako”. 2005-2006an Jesus Egigurenek Xabier Lopez Peña

‘Thierry’ eta Josu Urrutikoetxea ETako kideekin izandako elkarriketak oinarri hartuta, umoretik heldu dio gaiari zuzendari donostiarrak. “Borjak gaia azaldu eta umorez jorratuko zuela esan zidanean, beldur izugarria sartu zitzaidan –onartu du Ane Muñozek–, baina tonuan asmatu duela iruditzen zait. Antiheroiaz ari da azkenean, eta Egigurenenengan inspiratu arren beste norbait ere

izan zitekeen, beste testuinguru batean: arazo bat konpondu nahi duen gizajoaren istorioa da, finean. Proposamen ausarta izan daiteke, baina ez du gatazka politikoa barregarri uzteko asmorik”. Umore finlandiar gisa definitu du zuzendariak berak pelikulan darabilena, eta kontakizun sinpatikoa dela dio Muñozek, ez barrez lehertzekoa. *8 apellidos vascos* famatuak Cobeaga gidoilari izan bazuen ere, “ez du harekin zerikusirik, topikoetan oinarrituta dago *8 apellidos*, eta honek tonu serioagoa du, ez da esketx edo txiste bilduma bat”.

Umore melankolikoa dela gaineratu du Josean Bengoetxeak, sotila, grisa: “Isiluneak sartzen ditu asko, arnasa hartzen uzten du, eta hori oso baliagarria da pertsonaiak ulertu ahal izateko”. Halako historiak kontatzeko umorea erabiltzea ondo ikusten al duen galdetu izan diote aktoreari –Josu Urrutikoetxearengan inspiratutako pertsonaia antzeztu du berak–. “Zergatik ezin da ba umorea erabili? Dagoen armarik indartsuenetakoa da umorea, probokazioa bezainbestekoa. Pertsonaiei eta historiari errespetua diegun bitartean... Egigurenen inguru ideologikoko jendea kezkatuta omen dago pelikularekin, baina berak ez du kezka hori; hainbeste muturreko jasotakoa da leku guztietatik, itxaropena du pelikulak irudi hobea emango ote dion. Bestalde, euskaldunok badakigu gure buruaz barre egiten eta gai honetan halako terapia puntu bat behar dugu oraindik, umorea”.

Sentsibilitatetik

Luze eta zabal hitz egin dugu aurreko orrietan *Loreak* filmaz, baina bi zuzendaripean lan egitea zer moduzkoa den jakin nahi izan dugu. Garaño eta Goenagaren errodajeetako giroa oso familiarra dela nabarmendu dute, betiko lantaldea lagun. Bi zuzendari izanik, beti ez dira ados jartzen eta eztabaidak dituzte, “baina ezagutzen ditugunok umorez ikusten ditugu eztabaidok”, dio Bengoetxeak. Aktorearen hitzetan, sentsibilitate handiko bikotea da; “oso eleganteak dira, fenomeno batzuk”, erantsi du scriptak.

Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Bengoetxeak ez du uste “pelikula batek egon behar duenik Sail Ofizialean euskaraz delako, egon behar du ona delako, eta *Loreak* filmak merezi du egoitea eta ziur naiz asko gustatu zaiela jaialdiko programatzaileei”. Euskararen normalizaziorako pozgarria da, Muñozen arabera, erakusten duelako euskara beste edozein hizkuntza bezain aproposa dela istorioak kontatzeko.

Zuzendari malguak eta zurrunak

Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* film laburrean ere Ane Muñoz aritu da script lanetan. Zabaltegin hartuko du parte pelikulak eta hondarribiarraren hitzetan, anekdota txoro baten ondorioz protagonistak (Nagore Aranburuk) bizi duen egonezina eta obsesioa du ardatz: “Obra txikia da, lantalde txikiak egina, baina gustu handiz”.

Bengoetxea berriz, Zuzendari Berriak saillean emango duten *Los tontos y los estúpidos* laneko aktore nagusietakoa da. Antzerki kutsua duen komedia berezi honetan –aktoreen gidoi irakurketa bat da argumentua–, familia eredia eta bakardadea dira gai nagusiak. Roberto Castón da zuzendaria, *Ander* film ederraren egile bera, eta orduan bezalaxe, oraingoan ere ez du finantzaketarik lortu,

hortaz kooperatiba bidez sorturiko proiektua da hau, eta buru-belarri inplikatu da aktorea. “Filmaketa hasi aurreko egunetan, aktoreekin psikologo lana egiten du Castónek, istorioa eta pertsonaia nola asimilatu dugun aztertzen du, eta ondoren, errodajeen, dezente-ko askatasuna ematen digu, konfiantza handia du gudan eta sarri sentitzen duzu ez zaituela zuzentzen. Guk biok, gainera,

umore puntu bera daukagu eta elkarri begiratzeari aski zaigu elkar ulertzeko; bere musa naitzela esan ohi du. Beste zuzendari batzuk zurrunagoak dira estetikaekin, istorioekin eta aktoreekin. Jon [Garaño] eta Jose Mari [Goenaga] adibidez nahiko zorrotzak dira, oso argi daukatelako nahi dutena; Borja [Cobeaga] irekiagoa da. Ni neroni, agindu oso zehatzak jasotzen ditudanean eta estuki markatzen nautenean, motibatu egiten naiz, zenbat eta muga gehiago izan orduan eta gehiago eragin behar diozulako sormenari”.

Ez dute dudarik: pelikula indartsuak dira, eta jendartean harrera ona izango dute, itxaropentsu dira. Emaitza, gainera, anitza da. “Edozein film mota eta generotarako prestatuta gaude; hemen gure eskola dugula eta munduko beste puntatik datozen pelikulak bezain onak edo hobekak egin ditzakegula eta egin ditugula erakusteko balio dezala” espero du Muñozek. Euskal Herrian langile, artista eta teknikari handiak daudela argi baitu Bengoetxeak ere, beraz “jabetu behar dena jabetu dadila, industria badagoela eta bitartekoak jarri behar direla maila hori guztia etxean mantentzeko. Aldiz, begira ikus-entzunezko produkzioaren motore nagusia (EITB) zein geldi dagoen”. ■

“Zergatik ezin da ba umorea erabili? Dagoen armarik indartsuenetakoa da umorea, probokazioa bezainbestekoa. Pertsonaiei eta historiari errespetua diegun bitartean...”

Josean Bengoetxea, aktorea



Urrezko Aroko emakume zuzendari bakarra

Dorothy Arzner zuzendariari eskaini dio aurten Zinemaldiak atzera begirako klasikoa. Aparteko aukera da zor historiko bat kitatzeko, Hollywooden urte loriatsuetan zuzendariaren aulkian esertzea lortu zuen emakume bakarrarekin.

| GORKA BEREZIARTUA |

BERA BAINO EZ. Dorothy Arzner Hollywooden, 1930eko hamarkadan, Urrezko Aroaren erdi-erdian. Urte haietan hasi zen dena: aktoreen ahotsa aditu zuten ikusleek aretoetan, estudioak hasi ziren jende pilari lana ematen, hezur haragizko jendea mito bihurtu zen; eta biderkatu egin zen film kopurua. Argazkiak lanean harrapatu zuen, bozgorailua ahoan, kamera ondoan. Arzner, zuzendaria, postu hori gizonentzat erreserbatzen zuten garaian.

Idazmakinari sakatzen hasi zen estudioetan, film industriak lan egiten zuen kafetegiak baino hiru dolar gehiago ordaintzen zizkiolako astean. Testuetatik fotogramak mozttera. Fotogramak moztetik, editatzera. Eta editatetik, zuzentzera: 1974an egin zioten elkarriketa batean esplikatu zuenez, Players-Lasky estudioa –gero Paramount bihurtuko zena– uzteko mehatxua egin ondoren eman zioten film bateko batuta. Emakume bat zuzendari: albistea egunkarietan atera zen.

Bide urratzailea

1929an estreinatutako *The wild party* filmarekin hasiko da Donostian eskainiko zaion atzera-begirakoa, baina lehenxego egin zuen debuta, 1927ko *Fashions for women* mutuarekin. Esther Ralstonek jokaturako pertsonaia protagonista, Lola, emakume indartsu eta tarteka agresiboa da; zenbait kritikarik nabarmendu dutenez, zuzendariaren ondorengo ibilbide osoan agertu dira mota horretako pertsonaiak –Arznerrek antzekotasun horiek zalan-tzan jarri zituen, dena den–.

1928an zuzendu zuen lehenbiziko soinudun filma (*Manhattan cocktail*) eta halakorik egiten zuen lehen emakumea izan zen. Pertika-mikrofonoa berak asmatu zuela ere esaten



da, filmetako ahotsak grabatzeko kainabera bati lotutako mikrofonoak erabili zituelako.

Beste hamabost urtez aritu zen film industrian eta bere eskuetatik pasa ziren garaiko izar nagusietako asko (Clara Bow, Katharine Hepburn, Fredric March, Rosalind Russell, Claudette Colbert, Maureen O'Hara, Joan Crawford). Columbia ekoiztetxerako zuzendutako *First comes courage* (1943) izan zuen azken lana. Norvegiar girotutako nazien kontrako erresistentziaz diharduen filma zaila izan zen errodatzen, beste gauza batzuen artean, Arzner bera gaixotu egin zelako, ia urtebetez geldirik eduki zuen pneumoniak hartuta. Zuzentzen hasteko behar

izan zuen irmotasun berarekin hartu zuen erabakia: ez zuen pelikula gehiagorik egingo.

Genero-rolak hankaz gora

Eta ondoren isiltasuna. Denbora askoan Arznerren izena memoria kolektiboaren zoko batean gordeta geratu zen, 1960ko hamarkada iritsi eta mugimendu feministek haren obra berreskuratu zuten arte. Orduan jabetu ziren asko zein neurritaraino hartua zion aurrea zuzendariak bere garaiari. Film batzuen tematikari erreparatzea besterik ez dago: garaiko genero-rolak zalantzan jarri, emakumeek gizartean zeukaten paperaz gogoeta egin eta laneko sexu-jazarpena bezalako tematika garaikideak plazaratu zituen.

Publizitaterako lanak egin zituen gero, baita UCLA unibertsitatean zinemagintza eskolak eman ere –Francis Ford Coppolak berarekin ikasi zuen–. 1979. urtean hil zen, baina Hollywoodeko historian film gehien zuzendu dituen emakumea izaten jarraitzen du. Garaiak ez dira hainbeste aldatu. ■



Haur eta Gazte Literatura

Koloreak sukaldean
 Angélica López de la Manzanara.
 Itzultzailea: Fernando Rey.
 Denon artean, 2014



Irudimenari atekak irekitzen

XORRO ETA PITTI ditugu liburu honetako protagonistak. “Xorro ez da ez katu ez hartz-kume, ez zakur, ez ahate, ez arkume. “Honelaxe ekiten dio egileak liburuari, baina hori baino lehen azalean izenburuak adierazten digu zeri buruzkoa den obra, eta azaleko irudian sagu bat (Pitti), sukaldeko hainbat tresna eta animalia zehaztu gabea ageri zaizkigu. *Koloreak sukaldean* dio izenburuak, eta “koloreak” hitzeko hizki bakoitza kolore ezberdin batez azaltzen zaigu. Egilearen izenaren “i” hizkia, berriz, piper gorri batez egina dugu, sukaldeko elikagaien presentziarekin jolastuz.

Liburuaren hasieran, Xorro zer ez den azaldu ondoren, honakoa dugu: “Eta, sukaldeko gauzak lagun, koloreak erakutsiko dizkio Pittiri”; eta, hain zuzen, horixe izan daiteke liburu honen helburueta-ko bat, koloreekin jolastea, koloreak erakustea. Lapiko laranja, pitxar gorria, sardexka berdea... kolore eta neurri ezberdinetako tresnak agertzen dira; baina Xorrok sukaldeko tresnez gain, “Sukaldean ongi ikasi baino lehen, jatekoak non bildu ikasi behar da hemen” adierazten dio Pittiri, eta horrela “Uzta ederra dute lortua, kolore beroz beteta: gorri goxoak, laranja distiratsuak, arrosa leunak eta hori dirdaitsuak”. Testua ezkerreko orrian ageri den bitartean eskuinean saski bat dugu, zuri-beltzez egina eta barnean kolore bizi horietako elikagaiak.

Xorro eta Pitti ere irudian ageri dira, lehenak paella batean hainbat elikagai dituelarik.

Liburuak ez du aparteko argumenturik, jolas bat da gehiago, ipuina edo kontakizuna baino. Koloreekin aritzeko liburuak, bi lagunen arteko istoriotxoak, eta gertakariak, gutxi eta bakanak, adierazi baino iradokitzen dutenak. Alde horretatik Angélica López de la Manzanararen liburu honek literatura-tik baino dibertimendutik du; haur liburu bitxia eta aparta dugu; euskaraz honelako gutxi ditugu, eta aproposa izan daiteke kontakizunekin batera, ipuinekin batera, tartekatze haur txikiekin. Izan ere, Xorroren nortasunak, bi lagunen arteko harremanak, amaierak... aukera handiak ematen dituzte horien inguruan istorioak asmatzeko, haurrekin jolasteko, irudimenari atekak irekitzeko. Horixe bailitzateke liburu honen ekarpenik handiena, itxi gabeko istorio bat izatea, behin eta berririo ikusteko, berrirakurtzeko, birjolasteko liburuak.

Amaieran ageri zaigun “Ixxxxxxxxxxxxx” luzeak liburuaren akaberan gaudela adierazteaz gain, lotarako gonbidapena ere bada, Xorro eta Pitti bezala begiak itzeko eta hurrengo egunera arte agurtzeko, ondo lo egin...
 ixxxxxxxxxxxxx. ■



Xabier Etxaniz Erle



Eklektizismo distiratsua

IBILBIDE LUZEA du Victor Ullate dantzari zaragozarrak. Bakarlarri gisa edota koreografo moduan urte asko daramatza, arrakasta izugarriak lortuz. Beharbada, Espainiako estatuan dantzari onenaren aurrean aurkitu ginen Musika Hamabostaldiko edizio honetan. Orain dela 25 urte sortu zuen Victor Ullate Balleta, eta handik aurrera, kontuan hartuta balletaren mundua konplexua dela, bere tokia bilatu du eta munduan ospe eta prestigioa lortu ditu.

Oraingo honetan egitarau bariatua ekarri zuen, eta alor guztiak landu zituen. Batzuentzat oso gustukoa, beste batzuentzat, ordea, nahasgarri xamarra. *Jaleos* izeneko koreografiak erakusten digu, modu interesgarritz, festa flamenko bat, Ullateren estetikatik filtratua, oso estilizatua, idealizatua, eta dantza-teknika erabat klasikoa erabiliz. Dantza-talde osoak egiten du birtuosismo erakustaldia. Ez da harritzekoa lan honekin New York-en lortutako arrakasta, flamenkoaren muina eta sentsibilitatea batzen baititu, haren zakarkeria baztertuz.

Ondoren, giro erabat desberdina aurkitu genuen *Tres* izeneko dantzaldian. Marlen Fuerte, Reika Sato eta Cristian Oliveri dantzariak teknika garbia, doitasuna eta interpretatzeko sena erakutsi zituzten, Eduardo Lao konpainiaren zuzendari ondokoak Beethovenen musikaren gainean egindako koreografia honetan. Jarraian, Beethoven izan zen berriz ere inspirazioa, *Après toi* ballet obran. Josué Ullate (Victor Ullateren semea) izan zen protagonista. Dantzari fina eta dotorea aurkitu genuen, segurua. Primeran interpretatu zuen aitaren koreografia hori, non garbi-garbi aurkitzen genuen Maurice Béjart-en eragina. Béjart maisu frantziarraren XX. Mendeko Balleta taldean hamalau urtez aritu zen Ullate, eta, beraz, nabari da haren estiloa eta teknika zaragozarraren lanetan. Hori bai, bere ukitu pertsonalarekin.

Musika Hamabostaldia.

Victor Ullate Ballet.

Zuzendaria: Victor Ullate. **Zuzendariaren ondokoa:** Eduardo Lao. **Egitaraua:** Ullate eta Laoren koreografiak. **Lekua:** Kursaal Auditorioa, Donostia. **Data:** abuztuaren 29a.



Ukitu bera begi bistan zegoen Ravelen *Bolero*-ren Ullateren bertsioan. Ikuspuntu mundutar eta sofistikatu ematen du Ullatek hain ezaguna eta antzez-tua den pieza horren bidez. *Manisero* kantarekin hasita, *Bolero*-ra pasatzen da, ñabardura eta sentimendu desberdinak irudikatuz. Lehen esan bezala, oinarri tekniko klasikoa oso nabaria da, eta eskertzekoa ere bai. Batzuetan, dantza “moderno”-ren atzetik teknika eta kalitate eskasa ezkutatzen da, baina ez da Ullateren taldearen kasua. Bikain. ■

Montserrat Auzmendi



B R A N K A



Kontxako olatuen gainean, Haize Orrazarearen ondoan, bertako produktuenganako arreta bereziarekin


Urte osoan
menu berezia 36 €

Eduardo Chillida pasealekua, 13 · Donostia
© 943 317 096 · Faxes: 943 214 890 · branka@branka-tenis.com
www.branka-tenis.com



Gainpopulazioa, benetako mehatxua?

Gehiegi gara, edo gaur egungo jendarte antolamendua da arazoa?
Oraingo populazioari eutsi ahal izango diogu erregai fosilen osteko aroan?



Gu, zabor-jaleok
Manuel Casal
Lodeiro

Véspera de nada
elkarteko sortzailea

Elkarrizketa
Iñaki Sainz
Moncalvillo

Desazkundera
kolektiboko kidea

Dantza maitaleak nonahi

IRAILA dantzas blai dator, zenbait hitzordu garrantzitsu baitugu egunotan. Alde batetik Miarrizteko Maitaldia, Euskal Herrian egiten den handienetakoa, diziplina garaikidearen joera eta estiloen espektro zabala eskainiko ditu. 44 saio antolatuko dira, horietatik 18 aretotan, nazioarteko eta Euskal Herriko 26 dantza konpainiaren eskutik. Jendaurreko entsegu, erakusketa, dantzari buruzko film, mintzaldi eta ikastaroek osatuko dute aurtengo Maitaldiko programa oparoa. Eskaintza zabala, dudarik gabe, aurreko edizioan 18.000 ikusle erakarri eta aurtengoan beste horrenbeste lortu nahi baitute. “Ipar Euskal Herriko jende asko hurbiltzen da jaialdira, baina ez hainbeste Hegoaldekoa eta horiek erakarri nahi ditugu”, diosku Maitaldiko kanpo harremanetarako arduradun Eloixa Ospitalek. Konpainia handiak eta ezagunak, baina baita proposamen ausart eta berritzaileak ere, aruten ikusi ahal izango direnak.

Flandriako Royal Balletek zabalduko du jaialdia, *Ulisesen Itzulera* obrarekin. 43 dantzari biltzen ditu ikuskariak. Irailaren 19an Norvegiako Dantza Garaikide Konpainia Nazionalak *Not Here / Not Ever* taularatuko du Gare du Midi aretoan.

Dantza konpainia txikien proposamenei ere tokia egingo die ekimenak. Vilcanota dantza konpainiak eta Les Blérots de Ravel bandak, esaterako, zuzeneko rock musika eta dantza garaikidea batuko dituzte *L'Homme D'Habitude* lanean. Bestetik, La Coma dantza taldeak *Cartel* izeneko lana erakutsiko du. Jean Guizerix Parisko Operako dantzari ohia eta Romain di Fazio dantzari klasiko gaztea batu dira lan honetan, dantzaren iraganaz eta etorkizunaz jarduteko. Oraina eta dantza-aren biluztea dute ardatz.

Kalea, espazio eszeniko

Dantza Hirian jaialdi entzutetsuak Donostia eta Baiona arteko kale eta plazak jantziko ditu dantza garaikidez. Maitaldian ez bezala, saioak



- **Maitaldia. Non:** Miarrizteko Colisée, Gare du Midi eta Casino aretoetan. **Noiz:** irailaren 12tik 21era.
- **Dantza Hirian. Non:** Donostia, Erreterria, Pasaia, Irun, Hondarribia, Hendaia, Azkaine, Miarrizte, Bidarte, Donibane Lohizune, Baiona. **Noiz:** irailaren 11tik 28ra.

doan izango dira, eta toki zabaletan, ez aretoetan, irailaren 11tik 28ra.

Uztailean egindako egonaldien emaitza erakutsiko du Bartzelonako Jordi Vilaseca konpainiak, *Azala* izeneko lanarekin, Hendaia Itsas pasealekuan, hilaren 13an. Jaialdiak antolatutako beste egonaldi bati esker, Lasala Donostiako dantza konpainiak *Lanesku* estreinatuko du irailaren 19an, San Telmo museon.

Dantza Hirian jaialdiak hainbat ekimen bultzatuko ditu gainera. Besteak beste II Battle Break Dance saioa Irunen, jaialdiarekin batera egingo den BegiraDan argazki lehiaketa, tailerrak eta ikastaroak, edota dantzarien komunitatea batzea xede duen Nexos topaketa.

Madril, Bartzelona, Valentzia, Bordele edo Israelgo konpainiak izango dira gure artean, euskal dantza taldeekin batera. Aipagarria da Donostiako Dantzas konpainiak Pasaian erakutsiko duen *Chameleon*, irailaren 21ean. Pasai Donibanetik

San Pedrorako joan-etorriko txalupan egingo dute.

Jaialdiko azken asteburuan, hilaren 27an eta 28an, Baionan eta Erreterrian egingo dira erakustaldiak. Larunbatean, 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako marrazki tailerra izango da Baionan, Les Halles azokan, 16:30ean. Honen ostean, merkatuan bertan, Sharon Fridman Bartzelonako konpainiak *Noraino?* lana erakutsiko du. Jarraian, Montaut Plazan Bordeleko Revolution taldeak *Deep* lana eszenaratuko du, eta gero, Lacarre Plazan Madrileko Daniel Doña konpainiak *A pie de calle* erakutsiko du.

Igandean, Erreterrian, Hiriburuko Etorkizuna dantza taldeak *Leibotik* lana erakutsiko du 18:00etan. Honen ostean, Lali Ayguade eta Nicolas Ricchini dantzariak *Incognito* lana dantzatuko dute. ■

Myriam Garzia



Apple Watch ordularia, osasuna negozioaren muinean

APPLE KONPAINIAK, beste askotan bezala, jendeak egunak ilaretan igarotzea lortu du irail honetan. iPhone 6 izan da izarra, baina horrekin batera ordulari bat iragarri du enpresak: Apple Watch.



APPLE

Googlek Google Glass betaurrekoak iragarri zituen orain urtebete, eta orduz geroztik jakin izan dugu Apple eta Samsung ere gailu berriak merkaturatzeko asmoa dutela.

Azkenik, Apple izan da aurrea hartu duena. Googlek betaurrekoekin egin nahi du bere negozioa, eta sagarraren konpainiak, berriz, ordulariak jarriko ditu salgai. Erloju berezi honek tentsio arteriala, hidratazioa, bihotz taupaden abiada, glizemia maila eta abar neurtuko ditu. Datuak ordulari batean erakusten dira, eta horiek jasotzeko erabiliko den teknologia medikuntzan erabiltzen dena baino aurreratuagoa izango omen dira; beste hitz batzuetan esanda, inork ez daki zenbat milioi dolar inbertitu dituen Applek teknologia horren garapenean.

Ordularia 2015ean kaleratuko dute, 300 euro inguruko prezioan. ■



Meteoritoen inpaktuen mapa

METEORITOAK AZTERTZEKO AEBetako Elkartek mapa batean kokatu ditu K.a. 2500. urtetik 2012ra arte Lurra jo duten meteorito garrantzitsuenak. Guztira, 34.513 inpakturen berri jasotzen du mapak.



Meteoritoak tamainaren arabera sailkatu dituzte: 0 eta 9 kilogramo arteko 33.277, 10 eta 19 kilogramo arteko 431, 20-29 arteko 187, 30-39 arteko 87 eta 40 kilogramotik gorako 531 meteorito zenbatu dituzte.

Maparen balioa estatistikoa da batez ere. Bertan ikusten denez, meteorito gehien erortzen diren herrialdeak AEB, Mexiko eta Australia dira. Interneten, ttiki.com/79862 helbidean ikus daiteke Lurraren kontrako talkak non gertatu diren. ■



Espezie aurkitu berriak ezin sailkaturik

Ikerlariak etenik gabe aurkitzen dituzte animalia eta landare espezie berriak. Orain dela gutxi, Australiako hego-ekialdean aurkitu dituzte bi; animaliak direla jakin badakite, baina ez zein motatakoak. Perretxiko itxurako animalia sailkaezinak dira oraingoz.

ttiki.com/79870
(Gaztelaniaz)

Alkoholaren eragina haurdunaldian, uste zena baino are okerrago

Alkohola gizartean onarpen handia duen droga denez, haurdun dauden emakume askok normalki kontsumitzen dute. Alta, aldizkari frantziar baten arabera, uste baino eragin kaltegarriagoa izan dezake umearentzat. Frantziako Estatuan, esaterako, emakume haurdunen %20k alkohola kontsumitzen du.

ttiki.com/79871
(Frantsesez)

Hezurra transplantatu beharrean, lekuan bertan haztea eragin

AEBetako ingeniari kimiko batzuek arratoiekin egindako ikerketen arabera, posible da hezurri behar den lekuan hazaraztea. Gaur-gaurkoz, inon hezurra falta bazaigu, transplantatu da aukera bakarra. Beraz, medikuntzan bide berri baten atarian izan gaitezke, beti ere arratoiekin egindako saiakerek gizakiarekin egitean arrakasta bera lortuz gero.

ttiki.com/79872
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera


 web garapenak


 multimedia


 aholkularitza


 edukiak


iametza
 interaktiboa
www.iametza.com
 T.943 37 67 16

Kristoren esnea

LATEXA EZ DA IZERDIA. Landareek, gehienetan zuhaitzek, jariatzen dituzte bata zein bestea. Ez omen dira, ordea, gauza bera, ezta gutxiagorik ere. Izerdiak bi dira: gordina eta landua. Sustraieetatik gora doan izerdi gordina lurretik hartutako urez eta mineralez osatutakoa da. Izerdi landua hostoetan sortzen da, urari eta mineralei airetik hartutako karbonoa erantsita. Gordina lantzeko energia eguzkiaren argia da. Lan horri “fotosintesi” deitzen zaio: hau da, argiaren bidez sortzea.

Latexa ez dago landarearen elikadurarekin lotua. Itxuragatik esnea badirudi ere, bere izena ez dator “esne” esan nahi duen *lac*, *lactis* latinotik, “likore” edo “ardo kondar” esan nahi duen grekoko “λάτταξ”-tik baizik. Batez ere landarearen babeserako da. Izerdiak eta latexak bakoitzak bere bidesarea du landarean. Latexa dabilen hodiakoren bat puskatuz gero, isuri egingo da. Airea ukitutakoan zihatu eta zauria itxi egingo du, ez da izerdiustuko eta gainzei aurre



Pikondoa, *Ficus carica*, zaurituz gero esnea edo latexa ematen duen landare ugarietako bat.

egingo die. Era bateko edo beste-ko pozoia izan ohi du latexak. Landarearen hodiak haustura edo urratua animalia belarjalaren baten hozkak egin badu, ederki damutuko zaio: sutan izango ditu, puska baterako, ezpain eta oi. Matraila mugitu ezinik utz dezake zenbaiten edenak.

Zaurituz gero esnea edo latexa isurtzen duten landare asko etxeko ditugu: uraza (*Lactuca sativa*), pikondoa (*Ficus carica*), txikoria belarra (*Taraxacum officinale*), zaran belarra (*Chelidonium majus*), tarti-

kua (*Euphorbia lathyris*), kristoren arantza (*Euphorbia mali*), pazko lorea (*Euphorbia pulcherrima*), marugatzea (*Morus alba*), marugatze beltza (*Morus nigra*), kautxu landarea (*Ficus elastica*) eta abar. Haien latexa mina eta garratza da eta ukitzen duena (azala, begia...) minberatu edota erre dezake. Adibidez, enara belarra ere deitzen zaion zaran belarraren latex gorria garatxoak erretzeko erabiltzen da. Esan ohi da ukitzen dituen zelula guztiak hil egiten dituela. Garatxoak maiz maiz igurtzita, desagerrarazi egiten ditu. Neureak behintzat arin asko eraman zituen.

Bada latex jangarria ematen duenik ere, esnearen arbola (*Brosimum utile*), adibidez. *Utile* horrek argi asko dio: esne jangarri gozoa jariatzen du. *Brosimum galactodendron* eta *Galactodendron utile* ere deitu izan zaio, hau da, “esnearen arbola”. Venezuelan, *palo de vaca* deitzen dute. Eta, harrapazank, esnea eta hostoak galaktogenikoak dira; hau da, hartuz gero, bularraren emana areagotzen dute. ■



Uraren geografia

BASOTIK, belazetik, erriotik, itsasotik eta nonahitik lurruntzen da ura. Airera igaro eta lainotu. Lainotik lanbro, zirimirri, harri, txingor, maluta, ttantta eta ihintz landareengana. Landareetatik lurrera. Airetik hostoetan barrena eta lurretik sustraieetan barrena landareak bereganatu. Hor dabil gure ttantta etengabeko joan-etorri bizian.

Landareak, gutxi-asko, beti ura behar du. Loraldia eta fruituak hazten ari den sasoiak dira zailenak. Begira argazkiko tomateari. Hazten ari zenean lehorte latzen bat pairatu du landareak, eta azala zakartu. Gero ura etorri zaio eta fruituak hazten jarraitzeko azal gogor hori zartatu egin behar. Hona emaitza. Dotore askoa! Aurten, gertakari horren eragina patatetan ere ikusi da. Tuberkuluan zartadura geometriko poligonalak. ■

Zambiar bat Marten

LUSAKA TIMES



MARRHAS HEIDERICH



Ezkerrean, Edward Makuka Nkoloso Zambiar programaren sortzaileak *Lusaka Times* egunkarian idatzitako artikulua; "Martera goaz!" dio izenburuak. Alboan, *Afronauts* (Frances Bodomo, 2014) film laburraren irudi bat. Filmak zambiar programaren espaziala du hizpide eta Diandra Forrest aktoreak herrialdeko lehen astronauta izango omen zen Matha Mwamba neskatoaren rola jokatzen du.

ZAMBIA, 1964KO URRIAREN 24A. Ordura arte Ipar Rhodesia zenak independentzia aldarrikatu eta Erresuma Batuen mendean egoteari utzi zion. Gauza asko egiteke zeuden herrialde berrian, baina Zambiar programaren espazial handinahia abian zen ordurako. Gerra Hotz betean, estatubatuarren eta sobietarren arteko lehia espazioraino zabaldua zen, baina oraindik bost urte falta ziren gizakiak lehenengoz Ilargia zapaltzeko. Zambiar potentzia nagusiei aurrea hartuko ziekenez, 1964an bertan sortutako ekimena gauzatzea lortu bazuten: eskifaturako misioa Ilargira eramango zuten, baina satelitean geldialdia egin ondoren, Marteraino iritsiko ziren.

Planaren ideologoa Edward Makuka Nkoloso zen, eskola irakaslea eta bere burua Zambiar Espazio Agentziako zuzendari nagusi izendatu zuena. Agentzia bera Nkolosok sortu zuen eta izen dotorea jarri zion: Zambia National Academy of Science, Space Research and Philosophy. Aluminioz egindako kohetea katapultatu moduko gailu batez jaurtitzea zen asmoa, eta Nkolosok dozena bat boluntarioren laguntza bildu zuen horretarako, horien artean misiolari bat eta Matha Mwamba 17 urteko neskatoa. Marte zapaltzen lehenak nerabea, misiolaria eta bi katu izango ziren. Hori bai, misiolariak

agindu zehatzak jaso zituen: ilargitarrak eta martetarrak ez zituen ebanjelizatuko haiek nahi ez bazuten.

Programa espazialak finantziarioa behar zuen eta Nkolosok zazpi milioi libera zambiar eskatu zizkion UNESCOri. Baina ez zuen erantzunik jaso. Zambiar gobernu berriak ere ez entzunarena egin zuen. Horregatik, Nkolosok independentziaren ospakizunak baliatu zituen nazioarteko kazetariari proiektuaren berri emateko. Urriaren 30ean *Time* aldizkariak *Zambia: Tomorrow the Moon* (Zambia: bihar Ilargia) izenburuko erreportajea argitaratu zuen. Independentziaren nondik norakoez gain, zambiar astronauten entrenamenduari buruzko xehetasunak jaso zituen testuak: kasko zahar bat jarri, olio upeletan sartu eta aldapan beheara botatzen zituzten, edo zuhaitz batean esekitako kulunkari gogor eragiten zioten, "astronautek espazioko pisugabetasun sentipena izateko". Berehala beste komunikabide askok eman zuten Nkolosoren ekimenaren berri. Baina haien asmoa ez zen proiektua sustatzea, zambiarraz trufatzea baizik. Gogogabetuta, Nkolosok hurrengo ametsari ekin zion: Lusako alkate izatea. Helburua eskuragarriagoa zen, baina hura ere ez zuen lortu. ■



Arrastoak

Ardo urrintsua edaten zuten Antzinaroan

ANDREW J. KOH



TEL KABRI aztarnategian, Israel iparraldean, Ekialde Hurbileko ardotegi zaharrenaren arrastoak aurkitu zituzten duela urtebete inguru. K.a. 1700. urtekoak ziren gela bakarrean aurkitutako 40 lusuilak, eta 2.000 litro ardo inguru biltzen zituztela kalkulatu zuten arkeologoek. Lusuiletako arrasto organikoak aztertuta, ontziek

ardoa zutela baieztatu zuten lehenik, azido tartarikoak eta siringikoak topatu baitzituzten. Baina osagaiak xeheago aztertzeke aukera ere izan dute eta, berriki argitaratu dutenez, ardoari ezia, estoraka eta ahuntzadar erretxina, zedro olioak, ipurua, menta, mirtoa eta kanela botatzen zioten Antzinaroko ardogileek. ■

Epailea defentsa abokatu bihurtzen denean

Espainiako Auzitegi Nazionalak 2002/35 sumarioaren epaia eman zuen iragan uztailaren 30ean, abuztuaren atarian, opor giroan. Bere larritasuna eta gogortasuna zela eta, izan zuen oihartzun eta erantzunik, baina ez urtearen beste edozein sasotian izango zukeena. Zigor gogorrek dira epaiaren ezaugarrietakoa, baina epaile batek boto partikularra eman du: absoluzioa eskatzen du eta merezi du bere argudioak argi azpimarratzea.

| XABIER LETONA |



ARGAZKI PRESS / CHEMA MOYA

Ezkerretik eskuinera, auziko epaimahaikideak: Julio de Diego Lopez, Angel Hurtado Adrián (ponentea) eta Clara Bayarri Garcia.

CLARA EUGENIA BAYARRI GARCIA izan zen epaiarekiko desadostasuna agertu zuena, eta Ángel Hurtado Adrián (ponentea) eta Julio de Diego López izan ditu epaimahaikide. *Herriko tabernen* auzia moduan ezagutu dena bi zati handitan banatu da: bata “ETAren fronte instituzionala” deiturikoa eta, bestea, “finantza egiturarena”. 20 pertsonen espesxe zigorrak ezarri zaizkie

—denera 19 urte eta erdi— (ikus 37. orrialdeko laukia) ETAko kide edo kolaboratzaile izatea leporatuta. Funtsean, epaiak ebatzi du HB, EH eta Batasuna ETAren egiturako alderdi eta erakundeak zirela eta, beraz, haietan jardundako auziperatuak ETAkoak edo haren kolaboratzaile. Bigarren alorrean, 111 herriko tabernen ondasunen konfiskazioa agindu da, hauek

ETAren finantza egituraren parte direlako.

Epaiarekiko desadostasunak argi eta oso tinko azaltzen ditu Bayarri. Bat, auziperatuen jardunean ez dago terroristatzat har daitekeen deliturik, epaitu den auziperatuen jarduna ez delako sartzen Kode Penalean delitutzat jotzen diren jardura moldeetan. Bi, ez dago beste epairik ez froga nahikorik HB, EH



Bayarriren botoak hasieratik amaierara suntsitzen du bere bi kideen epaia, era berean Estatu espainiarrak zigor tresna bihurtu duen "dena da ETA" ikuspegi juridiko-politikoak deseginez.

eta Batasunak jardura terrorista izan dutela ondorioztatzeko eta, beraz, ETakoak direla esateko; alderdion aktibitate politikoa Konstituzioaren aurkakoa izan arren, Konstituzioak babesten duen moldez egin zen. Ez da, halaber, nahiko froga auzipetuak ETakoak direla esateko, eta oinarri gabeko sekulako jauzia ematen da: HB, EH eta Batasunakoak direnez, ETakoak dira. Hiru, *herriko tabernei* dagokienez, frogatutzat ematen da hauek HBrenak zirela, baina horrek ez du esan nahi horregatik ETaren finantzazio tresnak direnik, edo epaian behintzat ez da horren frogarik agertu.

Epaia bost ondorioak

Bayarriren desadostasunak sendo oinarrituta daude eta bere ondorio nagusiak irakurrira, askok pentsa dezake magistratua epaimahaikoa den edo auzipetuen abokatu:

1. "HB eta bere ondorengoak ezin daitezke prozedura honetan epaitu, bere legezko ordezkariak ez baitira honetara deituak izan, hauek defenditu ahal izateko (...) Erakundeen jarduna erabat politikoa izan zen, espazio publikoan eta soilik bitarteko politikoekin (...) ETak bai izan zuen hauek zurrupatzeko eta kontrolatzeko interesa, baina

—helburuetan bat etortzeaz gain— ez da frogatu ETarekin lotura organiko zehatzik izatea".

2. "Militantzia bikoitza'ren tesian oinarrituz, gehiengoaren epaiak terrorismoa eta erakunde terrorista kontzeptuen oso erabilera hedakorra egiten du, hau da, ezker abertzale osoa ETA dela edo haren sukurtsal edo hark kontrolatua (...) Horretarako erabiltzen diren inferentziak ez dira inondik inora erabakigarriak".

3. "HB eta bere ondorengoak jardura ez da egokia ez ordena konstituzionala iraultzeko ez bake publikoan eragiteko (...). Kasu honetan Konstituzioak onartutako eskubide politikoen adierazpenaz ari gara".

4. "Gehiengoaren epaiak egiten duen parekatzearekin, oso modu larrian jartzen da arriskuan erantzun penalaren proportzionaltasun printzipioa".

HB, EH eta Batasunaz, Bayarri epaileak: "Haien jarduna Konstituzioaren aurkakoa izan arren, Konstituzioak babesten duen moldez egin zen"

Epaia kontuan hartu gabekoak

Bayarrik absoltzioa eskatu eta frogarik ez dagoela esateaz gain, 100 orrialdeko boto partikularrean zehazten du epaimahaiaren gehien-goak ez dituela kontuan hartzen auzipetuak errugabetu eta ahozko saioan oso argi agertu diren hainbat datu eta agiri. Hainbat adibide jartzten ditu:

— **Auzipetuen izenak.** 19242 zenbakia duen polizia funtzionarioak bere aditu txostenaz emandako lekukotasunaz: "Haren hitzek argi uzten dute ETari bere aparato politikoaz atzemandako dokumentazioan ez dela topatu auzipetutako inoren gaitzizenik edo haien izenen erreferentziarik".

— **Ez dago agiririk.** Bai Ertzaintzaren zein UCiren (espainiar polizia-ren inteligentzia zerbitzuak) 2006ko abuztuaren 7ko txostenek ezeztatu egiten dute HBk ETarekin loturarik zuenik. UCikoak dioena: "Ez da ezagutzen Mahai Nazionala eta ETA lotzen dituen agiririk".

— **Hipotesiak dira.** 2002ko azaroaren 18an UCik egindako txostena 19242 poliziak eman zuen haren lekukotasuna eta epaketan esan zuen hura "lan hipotesi bat besterik ez zela, baina ondoren ez zirela hipotesi horiek frogatu, txostena orokorra zela eta ez zuela aditu izaerarik". Datu zehatzak egon izan balira, auziaren prozeduran izango zirela dagoeneko, baina ez zeudela.

— **Anoetako Belodromoko ekitaldia.** "Epaia aintzat hartzen ditu han gertatutakoak, baina kontuan hartu behar da gaur akusatutak direnak absoltbituak izan zirela [erakunde armatuei] gorazarre egin izanaz".

— **Ezker abertzalearen jardura politikoa.** "Instrukzio epaileak lau auto argitaratu zituen (2007ko urtarrilean, otsailean, apirilean eta ekainean) eta haietan argi utzi zuen ezker abertzaleareari ez zitzaizola suspenditu inongo aktibitatearik. Azpimarragarria da otsailekoan dioena: 'Auzi honetan ez da frogatu ETak ezker abertzale osoa gidatzen duenik.... hainbat egiturek ez dute ETaren agindurik jarraitzen'".

— **Herriko tabernak.** 2008ko apirilaren 3ko polizi txostenaren lekukotasuna eman zuten poliziek, azaltze-

Zigorrak

. **Talde armatuko kidea izateagatik, 3 urteko kartzela zigorra eta 6 urteko gaitasungabetzea:** Joseba Permach, Rufino Etxeberria, Juan Kruz Aldasoro, Joseba Alvarez eta Karmelo Landa.

. **Talde armatuko kidea izateagatik, urtebeteko kartzela zigorra eta 4 urteko gaitasungabetzea:** Jon Gorrotxategi, Floren Aoiz eta Antton Morcillo.

. **Talde armatuarekin kolaboratzeagatik, urtebeteko kartzela zigorra, sei hilabeteko isuna (3 euro eguneko) eta 4 urteko gaitasungabetzea:** Vicente Enekotegi, Jose Luis Franco, Enrike Alaña, Maite Amezaga, Juan Ignacio Lizaso, Jon Martinez, Patxi Jagoba, Idoia Arbelaitz, Jaione Intxaurrea, Agustin Rodriguez, Izaskun Barbarias eta Ruben Andres.

. **ETAren finantzazio egitura osatzeagatik, 111 herriko tabernen konfiskazioa agintzen da.**

. **Absolbituak:** Isabel Mandiola, Santi Hernando, Adolfo Araiz, Mikel Arregi, Juan Carlos Rodriguez,

Kepa Gordejuela, Esther Agirre, Jasone Manterola, Xanti Kiroga, Juanpe Plaza, Txekun Lopez de Aberasturi, Sabin del Bado, Felix Morales eta Andres Larrea.

. **Luzamendu bidegabea.** Zigorren aringarri gisa, epaiak kontuan hartzen du auzia behar baino luzeagoa izan dela, horrek auziperatuen aurka egiten duela eta, zigorrak txikitzea onartzen du guztientzat. Talde armatuko kide gisa zigortu dituenak bi multzotan bereizten ditu: haien aurkako ekinbide judiziala indarrean jartzen denetik jardura politikorekin jarraitzen dutenak eta jarraitzen ez dutenak. Lehenengo taldekoei (3 urteko zigorra) gradu bat arintzen die zigorra eta bigarren taldekoei bi gradu, hortik delitu beragatik auzi berean zigor desberdinak izatea.

. **Helegitea:** Auzitegi Gorenaren aurrean helegitea jarriko da eta honek ebatzi arte zigorrak ez dira indarrean jarriko. Erraz joan liteke urte batetik gora.

ko taberna bakoitzak ETA-KAS egiturekin zuen harremana. “Haiek erantzun zuten ezin zela hori egiaz-tatu tabernak ‘ez dituztelako bakarka ikertu’”. Oro har, epaileak dio ez dagoela agiri bakar bat ere herriko tabernak ETA-KASEkin lotzen dutena, ez *Udaletxe proiektua* dokumentuan ezta ere *Herrikoak, bebearrezko den eztabaida*-n; areago, Bayarriren ustez, azken honek kontrakoa frogatzen du.

Harribitxiak

Bayarriren botoak hasieratik amaierara suntsitzen du bere bi kideen epaia, era berean Estatu espainiar-rrak zigor tresna bihurtu duen “dena da ETA” ikuspegi juridiko politikoa deseginez. Hemen bere argudioen beste hainbat adibide:

– **HB, EH eta Batasuna ETAren aginduetara egoteaz.** “Auzian parte hartutako akusazio bakarrak ere ez du eskatu hiru alderdi horiek elkarte terrorista izendatzea (...) defentsako abokatu batek azaldu zuen hori ahozko auzian eta ados ez nagoen epai honek sekulako argudiatze ahalegina egiten du aurre baldintza eza horren gainetik egiteko, besterik gabe esanez Herri Batasunak onartu zuela ETAren tresna bilakatzea”.

– **Karmelo Landa.** Epaiak erabil-tzen du *Portu* izeneko agiria, eta bertan eskatzen zaie ETako arduraduei “Landari konpromiso handiagoa eskatzea”. Hortik zera ondorioztatzen du epaiak, konpromiso handiagoko eskatzen bazen, horrek esan nahi duela konpromiso txikiagoa bazegoela. Bayarrik aldiz zera dio, “ezin da halakorik egin, batez ere akusatua ukatu egiten duelako inoiz ETAn parte hartu izana (...) areago, ez da aintzat har-

Boto partikularren ustez, epaian oinarri gabeko sekulako jautzia ematen da: HB, EH eta Batasunakoak direnez, ETakoak dira

tzen agiri horrek erakusten duen beste ikuspegia, Karmelo Landak ez zuela inongo konpromisorik ETArekin (...) bai, HBn baziren ETAren infiltratuak, eta horiei bai eskatzen zitzaizkien ardurak (...) *Portu* agiriak erakusten duena zera da, Landa ez dela HBren kontrol ahaleginaren parte, izatekotan, berak ETAren kontrol hori pairatu zuela”.

– **Batasuna legez kanpo jarri ondoren Joseba Permachen jardura politikoa aztertuz** (berdin esan liteke beste auzipetuez): “Ez da posible esatea hainbat pertsonentzat jardura batzuk elkartzeko, bilera edo manifestazio eta adierazpen askatasun eskubideen erabilera direla, eta beste batzuentzat, hori bera talde terroristako kide izatearen zantzu bihurtzea”. Eta honakoa dio Permachen kasuan erabilitako bi partehartze-zantzuri buruz. Bat, Batasunaren ilegalizazioaren aurkako manifestazio batean egon zela, 2004ko abuztuaren 27an: “Ez da posible beretzat hau delitu zantzua izatea, antolatzaileentzat hala ez denean, eta hauek ez dira auzipetuak izan”. Beste bat, 1999an Bilboko Euskalduna Jauregian Udalbiltzako sorrera ekitaldian parte hartu zuela. Bayarri: “Han esandako ezer ezin da ETAren sostengutzat hartu, hango gertaerak epaituak eta absolbituak daudelako”.

Espainiako Auzitegi Gorenak erabaki behar du orain epaiari jarriko zaion helegiteaz eta, berriz ere, bultzada politikoa giltzarri izango da horretan. Hiru epailetik batek tamainako boto partikularra eman izana, halaber, Gorenak aintzat hartzeko modukoa izan daiteke. Hala behar luke. ■



Eredu osoa aldatu nahian Donostian

Hiria guztientzat erosoago egiteko mugikortasun planarekin dihardute Donostian. Ez da soilik bide eta kaleetako erosotasuna, bizi eredu sozial eta ekonomiko oso baten aldaketa da atzetik datorrena. Azken hamarkadetan daramagun bizimoduak hirigintza molde batzuk bultzatzen ditu, baina gaurko beharrei ezikusiarrena egin gabe beste herri bat posible dela erakutsi nahi dute.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

Argazkia: Dani Blanco

KIROLA EGITEKO punta-puntako eraikuntzak hiriaren zonalde hartan; goi mailako ikasketak egiteko ikastegi eta liburutegirik prestatuena beste hartan; auzune horretan, berriz, erosketak egiteko gune zabal bat parking eta guzti; eta paseatzeko belardirik ederrenak alde horretan. Horrelaxe antolatu dugu azken hamarkadetan gure hirigintza, eta alde batetik bestera mugitzeko kotxeentzako aparkalekurik eta biderik onenak nahi ditugu. Aurre-rakoia dirudigu egunean alde bate-tik besterako desplazamendu horiek guztiak egin behar izateak, eta mugikortasun planek molde horietara bideratzea eskatzen dugu herri-tarrok.

Mugikortasun jasangarriaz hitz egin du Jon Albizu Donostiako Udaleko mugikortasun zinegotziak. Gaia sistema ekonomiko eta sozialaren barruan kokatzen du: gaurko eredu noraino da jasangarria? Puntu potoloa da eta badaki, dio, horrelako sistema baten aldaketa ez dela gauetik goizerakoa izango. Baina bitarte horretan beren esku dauden eta bide horretarantz hirian egin ditzaketen aldaketak egiten hasiak dira.

Garbi dute biztanle askok eta askok mugitu beharra daukatela egunero, bai Donostiatik inguruko beste herriren batera, baita inguruetatik Donostia-rra ere; eta ahalik eta baliabide gehienak jarri nahi dizkiote hiritarra-ri, beti ere ahalik eta eredu jasangarriena bultzatuz.

Horretarako sortu zuten, esate baterako, garraio publikoan modu bateratuan erabiltzeko Mugi txartela, Gipuzkoako Aldundiarekin elkarlanean. Horrela, bai hirira kanpotik joanda edo bai hiritik kanpora, autobus publiko sisteman txartel berberarekin ibili ahal izango da. Hiri barruko autobusetarako ere balio du, baina Donostian bertan mugitu ahal izateko beste baliabide batzuk ari dira gehitzen; bizikletentzako bidegorri sarea, adibidez.

Lehendik zegoen sarea handituz

Albizuk dio aurreko legealdietatik datorren sareari heldu diotela, lehendik pauso batzuk emanda dau-dela, eta orain sare hori handitzen



Blas de Lezo, Donostian eredu jasangarrian oinezkoentzat moldatu duten kaleetako bat. Trafiko seinale eta marrak ezabatu, lurra pintatu, landare eta banku batzuk jarri... eta autoen burrundatik oinezkoen lasaitasunera pasa da.

ari direla. Baina kasu horretan, azpi-marratu du orain arte bidegorri gehienak oinezkoei espaloietatik lekua kenduta egin direla, eta momentu honetan egiten ari direnak, aldiz, ibilgailuentzako bideetatik egiten ari direla.

Helburua da hirian zehar ahalik eta auto gutxien ibiltzea, eta jende-ari mugitzeko aukera murriztu gabe, desplazatzeko beste eredu batzuk eskaini eta sustatzea. Horrez gain, hirian zehar zenbait bide eta kaletan kokatuta dauden zona 30 deituriko-en kopurua ere handitu dute; horrela, motordun ibilgailuen mailan jarri dituzte bizikletak.

Oinezkoentzat gune gehiago

Desplazamenduez hitz egitean, askotan jende gehienak mugitzeko

erabiltzen duen era uzten dugu alde batera: oinez ibiltzea. Orain arte kale gehienak moldatu ditugu kotxeentzako bideak egin eta oinezkoa bazter batean utzita, baina badi-rudi modan jartzen ari dela ibiltariarentzako guneak egitea.

Donostian ere gaitu dituzte oinezkoentzat zenbait kale, baina modu desberdinetan egin dituzte batzuk eta besteak. Hemen ere sistema ekonomiko eta soziala. Orain arte hirian oinezkoentzat moldatu diren kaleak egiteko kostua oso altua izan ohi dela azaldu du Jon Albizuk. Pare bat kale modu horretan moldatu dituzte, baina beste bi jarri nahi zituzten oinezkoentzat prest, eta aurrekontua handiegia zen.

New Yorkeko eredia

Leku oso desberdinetako hainbat eredu begiratzen aritu zirela dio zinegotziak, eta azkenean New Yorkeko auzo batean ikusitakoarekin egin dute apustu. Ia batere aldaketari egin beharrik gabe, ez lurra berdindu, baldosa jarri... ia

Mugikortasun jasangarriaren astea

EGITARAU ZABALA osatu dute Donostian irailaren 15etik 22ra, mugikortasun astea dela eta. Egin dituzte dagoeneko zenbait ekin-tza, batzuk berriak, beste batzuk aurreko urteetako arrakasta ikusita errepikatuak. Ziklobia, adibidez. Bogotako (Kolonbia) lagun batek azaldu zien han zenbait kale egun batez motordun ibilgailuei itxi eta oinezko zein bizikletentzat egokitzen zituztela, eta lehengo urtean proba egitea pentsatu zuten Donostian. Oso esperientzia polita izan zela oroitzen du Albizuk; kaleak berreskura-

tzearen sentsazioa. Horrez gain, haur zein helduentzat ibilbide eta jolasak daude antolatuta hirian zehar, ikus-entzunezko emanaldiak egongo dira, baita erakusketak ere, besteak beste. Aurtengoa Donostiako suhiltzaileen parkean bizikleta denda txikien eta konpontzaileen azoka antolatu dute. Ikusita hirian geroz eta jende gehiago mugitzen dela bizikletaz, jabetu dira horrelako den-dek gora egin dutela, eta merkatu hori ikusarazi eta bultzatu nahian aukera eman diete beren postuak jartzeko.

zegoen bezalaxe utzi, trafikorako zeuden seinale eta marrak ezabatu, lurra pintatu eta bizpahiru banku jarrita nahikoa! Izugarriko dirutzarik gastatu gabe auzotarrei beren inguruan lasaiago ibiltzeko aukera ematen zaie, eta bide batez

euren bizitza auzoan egitera bultzatu. Azken batean, hiritarren mugitzeko moduetan eragin baino, nolako hiri eta herriak nahi ditugun hausnartu beharra da gakoa. ■



Donostia beste mugikortasun eredu baten alde

Irailaren 15etik 21era

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN EUROPAKO ASTEA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



«Bistan da gurasoek eta euren seme-alabek desberdin hitz egiten dutela»

25 urte daramatza euskalkien azterketan Koldo Zuazok (Eibar, 1956).

Euskal Herriko Unibertsitatean Dialektologia irakasle, hainbat lan argitaratu ditu han-hemengo hizkeren gainean. *Euskalkiak* (Elkar, 2014) izeneko liburua du udaberriaren kaleratua, euskalkiak, azpieuskalkiak eta hizkerak aztergai. 2020rako bukatu nahi luke gaur egungo euskararen azalpen osoa. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Bizkaiko mendebala ditu oraindik ere zain.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

XXI. mendeko Luziano Bonaparte printzea zaitugu.

Ez, baina hark egin zuen bide bera ibiltzea egokitu zait. Gainera, biok jaso dugu laguntza eta babes zabala geure ibilbidean. Orain, esate baterako, Saran daukat neure lantegia eta iaz, urriaren 1ean, goizeko 11etan hara heldu, eta arratsaldeko hiruretan etxean neukan ikastolako guraso bat ate joka, Marie-Pierre Pradere, lehenbiziko bi asteetako lan-programa eskuan zuela: egunero, goizean, pertsona bat izango nuen elkarrizketatu zain; bazkalondan, beste bat. Hirugarrena, iluntzean. Horrela egunero, jai eta aste, larunbat eta igande. Hori sekulakoa da! Pertsona arrunt bezala joan izan banintz, nola ezagutu eta inguratu hiztun egokiak? Zenbat denbora eman beharko ote nuen horretan?...

***Euskalkiak* argitaratu berri duzu. Sarreraren diozu 1989an duela hasiera zure lanak, 25 urte daramatzazula honetan...**

1989an Koldo Mitxelena Ikerkuntza Saria sortu zuen Errenteriako Udalak, eta Arabako euskara gaitzat hartu eta hura aztertzea bururatu zitzaidan, Mitxelena izan zelako Arabako euskaraz ikertu zuen lehena.

Lana egin eta saria irabazi nuen. Baina gehiago jakiteko gogoa geratu zitzaidan, eta lanean jarraitu nuen. Araba ondoko herri euskaldunetara joan nintzen: Deba ibarrera lehenengo, Oñati eta Aretxabaleta aldera, eta Goierriera gero. Hurrena, Nafarroara, Urdiainera. Hango euskara entzun, eta oso berezia iruditu zitzaidan. Bonapartek, berriz, gipuzkeran sartu zuen. Ez zitzaidan erabaki

“Litekeena da Biarno eta Huesca, gaur egun erdaldunak diren arren, ekialdeko euskalkiaren sorleku izatea”

zuzena iruditu eta galdera hauxe egin nion neure buruari: “Ea hemen ez ezik beste zenbait lekutan ere erratu den gure Bonaparte, edo ea euskara bera aldatu ote den ordutik hona?”. Ondoren, Errenteria eta Irun bitartean ibili nintzen, Baztanen, Iparraldera igaro nintzen... Iparraldean, esaterako, hiru euskalki bereizi zituen Bonapartek Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Nik, ordea, ez nuen horrenbesteko alderik suma-

tzen hango euskararen. Orduan hartu nuen erabakia: “Euskal Herria alderik alde ezagutu eta gaur egungo euskara zertan den ikusi behar diat”. Horrela hasi nintzen.

Bonapartek huts egin zuen sailkapenean, ala euskara aldatu egin da ordutik hona?

Batez ere bigarrena: euskara ikaragarri aldatu da. Jakina, Bonaparte gizakia zenez, hutsegiteak ere izan zituen. Esate baterako, Urdiaingo eta Etxarri Aranazko hizkeretara itzulpen batzuk egin zituzan aginduz hango apaiz bati. Garai hartan ez zegoen dialektologia zer zen zekien lagun askorik eta apaiz hark, nonbait, Bonapartek euskara “onera” itzultzea nahiko zuela pentsatu, eta Tolosaldeko euskarara itzuli zuen, hura zelako garai hartan euskara on eta dotoretzat jotzen zena. Bonapartek, itzulpen haiek ikusita, gipuzkeraren barruan sartu zituen Urdiain eta Etxarri Aranatz.

Bonaparteren sailkapenak balio du gaur egun?

Lekukotasun historiko moduan, bai. Bestela, uste dut Lapurdin eta Nafarroa Beherean hiru euskalki bereiztea gehiegizkoa dela. Gehien-



“Beste hizkuntzetan aspaldi egin dira lan horiek eta oraintxe ari naiz ni, XXI. mendean, azpieuskalkien eta hizkeren ezaugarriak azalerau nahirik”.

bat, horretantxe ikusten diot Bonaparteren sailkapenari akatsa. Gainerakoak, zehetasun kontuak dira.

Belaunaldien artean hizkeraren etena gertatu dela diozu liburuan.

Ez da bat-bateko etena, baina bistan da gurasoek eta euren seme-alabek desberdin hitz egiten dutela. Aitaita-amamen eta iloben artean argiago ikusten da aldea. Hala ere, oharra egin behar dut horretaz. Hizkuntza sendo dagoen lekuetan

ez da hain nabarmena. Eman dezagun Ondarroa bat, Azpeitia bat, Araitz bat... horietan ez da hain erabatekoa. Aldiz, Durango batean, edo Urdiain batean... euskararen egoera makalagoa den herrietan, eskola gertatu da euskara jasotzeko iturri nagusia, eta eskolako eta etxeko desberdinegiak gertatu dira. Horrek ekarri du aitaita-amamek eta haien ilobek hain hizkera desberdinak egitea. Eta horrek arazoak ekarri ditu eta ekarriko ditu.

2008an egin zuten *Euskalkiak, euskararen dialektoak* liburua. Bidea egin duzu harrezkero, eta berrikuntzak ere badira...

Berrikuntza bi, behintzat, badira eta oso esanguratsuak. Batetik, euskalkien jatorriari dagokiona. Ikuspegi klasikoaren arabera, euskalkiak oso zaharrak dira. Baina ez da azterketa sakonik egin. Elena Barrena historialariak heldu zion gaiari. Mendietan jarri zituen euskalkien sorlekuak. Horrek implizituki esan nahi du euskalkiak artzain ekonomia garaikoak direla, oso aspaldikoak. Mitxelenak oso bestela ikusi zuen egoera. Haren iritziz, euskalkiak erromatarrak hona etorri ondorengoak dira. Gaur egun ziurtzat eman dezakegu Mitxelena-aren ikuspegia, eta nire ekarpena euskalkien sorlekua hiriguneetan jartzea izan da, eta hirigune horiek lotzen dituzten bideei inportantzia ematea. Horren arabera, sei sorleku izan dira: Iruñea, Gasteiz, Tolosa-Hernani-Donostia ardatza, Gernika-Bermeo-Zornotza –eta, beharbada, Durango– ardatza, Lapurdiko itsasbazterra. Ekialdean ere izan da sorleku esanguratsu bat, baina ez dut garbi ikusten haren kokagune zehatza.

Zuberoan ari zara bila...

Hasieran uste nuen Zuberoan egon zitekeela, baina Zuberoa oso txikia izan da, eta aldiz, ekialdeko berrikuntzak asko izan dira eta oso eremu zabalera hedatu dira: Nafarroa Beherera, Lapurdiko ekialde-Erronkarira eta Zaraitzura. Hori horrela izateko, hirigune indartsuren batetik abiatu behar



Liburu azoka

Gasteizen, irailaren 26tik urriaren 12ra Gasteiz etorbidean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



“Nire ekarpena euskalkien sorlekua hiriguneetan jartzea izan da, eta hirigune horiek lotzen dituzten bideei inportantzia ematea”.

izan dute, azpiegitura sendoko lekuren batetik... Egoera hori ulertu nahian, Arabako adibidea etorri zitzaidan gogora: alegia, orain dela hogeitau urte inork ez zuen uste Araban ezer sor zitekeenik, guztiz erdalduntzat jotzen genuelako. Modu berean, litekeena da Biarno eta Huesca, gaur egun erdaldunak diren arren, ekialdeko euskalkiaren sorleku izatea. Ez dut esan nahi hori horrela izan zenik, ate hori zabalik utzi behar dugula baizik. Etorkizuneko ikerketek ekarriko dute argia.

Euskalkiak ditugu batetik, azpieuskalkiak bestetik. Euskalkien mapa findu nahian ari zara etengabe.

Bonapartek berak ere esan zuen azpieuskalkiak bazirela eta 25 bereizi zituen. Nik ere esan izan dut azpieuskalkiak badirela, baina orain arte ez ditut sekula azaldu. Horixe izan da *Euskalkiak* liburuaren bigarren berrikuntza nagusia. Etorkizunera begira, hizkerak aztertzea gertatzen zait. Liburu honetan sei aurkeztu ditut, eta hurrengorako utzi ditut gainerakoak.

Ez gara orain eta hemen ezaugarri morfo-fonologikoak haizatzen hasiko. Hor du liburua irakurle saiatuak eskura. Bakarka ari zara lanean?

Bakarka ari naiz, bai eta ez. Bonaparteren garaiarekin alderatuta, gaur egun bibliografia zabala dago, lan asko egin da. Ez daukat herri guztietara joan beharrik. Askotan, etxetik irten gabe, irakurritz eta beste egindako lanak erabiliz egiten dut lan. Jakina, ondoren, dena delako tokira joan eta datuak egiaztatzea dagokit, baina egiaztatzea samurra da. Bonaparte, aldiz, hutse-

“Inoiz esan izan didate Bonaparteren kontrario nagusia naizela, eta nik ezetz diot, alderantziz dela, Bonaparteren aldekorik handiena naizela, lan hau egitea zein nekoso den beste inork baino hobeto ikusi dudalako joan den aspaldi luzean”

tik abiatu zen, eta hutsetik abiatu beharra beti da gogorra. Horixe aitortu behar diogu Bonaparteri. Inoiz esan izan didate Bonaparteren kontrario nagusia naizela, eta nik ezetz diot, alderantziz dela, Bonaparteren aldekorik handiena

naizela, lan hau egitea zein nekoso den beste inork baino hobeto ikusi dudalako joan den aspaldi luzean. Bonapartek, gainera, askoz ere egoera txarragoan jardun zuen lanean: erdalduna zen, Londresen bizi zen... Hark bai eduki zuela meritua!

Aitortu zaio meritu hori?

Ez behar beste. Euskalkien gaineko lanagatik da ezaguna Bonaparte gurean, baina, horretaz aparte, berak zabaldu zuen Euskal Herri osoan ortografia sistema berria. Xahok bazituen proposamen batzuk eginak Iparraldean, baina haren albisteak ez ziren hona heldu harik eta Bonaparte azaldu zen arte. Bonapartek, bestalde, bazela euskalki indartsu bat aldarrikatu zuen, Italian Toskanakoa zuten moduan, eta Gipuzkoako euskarak bete behar zuela leku hori. Hori guztia ez zaio Bonaparteri aitortu. Bestalde, XIX. mende hartan, hemengo ok uste genuen euskara hizkuntza basatia zela, ez zuela ezertarako balio. Eta pertsonalitate handi bat Londrestik etorri eta euskaraz ikastea, harrigarria gertatu zitzaion hemengo agintari eta jende handiari. Eta Euskal Herri barruan ez ezik, European barrena ere zabaldu zuen euskararen ospea.

Bonaparteren ekarri handia hor gelditu zen, ordea. Dialektologia ez zen urte askoan aitzinatu.

Unibertsitaterik eza da arrazoi nagusia, klabea, eta ez bakarrik hizkuntzari dagokionez, baita historian, arkeologian... arlo guztietan ere. 1980 arte, zerbait ikasi nahi zuenak Valladolidera, Zaragozara, Bordelera... joan behar zuen. Eta leku horietara joanda ere, ez zeukan gure gaiak ikasteko aukerarik. Horregatik gabiltza atzeratuta. Dialektologiari dagokionez, Bonapartek euskalkien mapa egin zuen, baina ez zituen euren ezaugarriak zehatz-mehatz adierazi. Beste hizkuntzetan aspaldi egin dira lan horiek, eta ni, esate baterako, oraintxe ari naiz, XXI. mendean, azpieuskalkien eta hizkeren ezaugarriak azalerratu nahirik. ■



bertso saioa

argiaren alde

Irailaren 27an

Usurbilgo frontoian · 18:00etan



Amets Arzallus



Uxue Alberdi



Miren Amuriza



Julio Soto



Sustrai Colina



Rosi Lazkano

5 € · sarrera bertan

argia
eguna

LAGUNTZAILEAK

antza
komunikazio grafikoa



Bizi egun bat ARGIAren baloreetan

Jasangarritasuna, parekidetasuna, lurraldetasuna, euskaltzetasuna eta parte-hartzea. Bost balio horiek hartu ditugu kontuan egitaraua adosterakoan, oholtzaratuko diren izenak bilatzerakoan, zerbitzatuko ditugun elikagaiak hautatzerakoan... Hona irailaren 27an Usurbilen gozatu ahalko duzuna.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |



Ezkerreko irudian, Zangozako Oinez Basoan hazi eta buztinez eginiko bolak botatzen. Argia Egunean Nendo Dango tailerlean egingo ditugunak ere Oinez Basoa biziberritzeko erabiliko dira. Eskuineko argazkian, NAN espainiar jaurtiketan errekorra jarri duen asturiarra. Hasi entrenatzen Argia Egunean bere 38 metroak gainditzeko!

10:00ETAN emango diogu hasiera egunari, eta 1998tik gure proiektua laguntzen diharduen Usurbilgo Argiaren Lagunak taldeari omenaldi xumea egingo diogu –burutu izan dituen ekintzen artean, agian ezaguna egingo zaizu urtero abenduan Usurbilen antolatzen duen Pirritx eta Porrotx pailazoaren emeraldia–. Goiz osoan zehar izango duzue aukera jolasen txokoan aritzeko, ARGIA proiektua gertuagotik ezagutzeko, Hernaniko fanfarearekin saltoka aritzeko, ARGIAko txosnan tragoa eta moka-dua egiteko...

Ordubeteko txango gidatua Jakobaren Errekondo, Josu Tellabide eta Jon Ander Galarragarekin

Adin eta ezaugarri guztietako pertsonen egiteko moduko ibilbidea prestatu digute luxuzko hiru gidek:

Josu Tellabidek Usurbilgo baserrien liburu mardula osatua du eta ibilbidea azalpen historiko eta etnografikoaz jantziko du. ARGIAN urte askoan landaredia aztergai duen Errekondok azalduko digu geldialdi bakoitzeko paisaia kulturala. Eta ARGIAren webgunean *Konpostazank!* bloga duen Jon Ander Galarragak auzokonposta gunea baliatuko du konposta egiteko irizpideak azaldu eta konpostagailu barruko faunaren behaketa zuzenean egiteko.

10:15ean plazatik abiatuko da ordubeteko ibilaldia eta Usurbilgo herriaren sorrerara bidaiatuko dugu, egun Kalezar deitzen zaion auzo hori izan zela Usurbil hiribildua oroitzuz. Ez galdu aukera paisaiaren ikuspegiak gozatzeko, eguna pasako duzun inguruaz ikasteko eta hiru adituei zuzenean kontsultak egiteko.

Hazi bolak euskara eta lurra biziberritzeko

Zangozako ikastolarekin eta Zestoako Katamarroa natur taldearekin elkarlanean, hazi eta buztinezko bolak (Nendo Dango) egingo ditugu 11:30ean hasita (informazio osoa

LIZARDI
LIBURUDENDA

Etxebeste kalea 1, Usurbil
☎ 943 36 11 15

Bazkari herriko umoretsua: Erabat Euskal Herriko eta garaiko produktuekin egina

Sarrerakoak

- Hiru tomateko entsalada, pesto eran: Tuterako, Aretxabaletako eta Hernaniko uzta.
- “Basatxerri” patea Ezpeletako piperraz.
- Ibarako piperrak.

Leben platera

- Arguedasko arroz ekologikoa garaiko barazki ekologikoekin.

Bigarren platera

- “Lumagorri” oilasko gisatua, Arabako patata eta garaiko barazki ekologikoekin.

Azken burukoak

- “Idiazabal” gazta, naturala eta ketua.
- Baserriko izozkia.

Kafea

Edateko

- Lezaun upategiko “Egiarte” ardo beltz ekologikoa
- Lezaun upategiko “Egiarte” ardo gorri ekologikoa.
- Sagardoa txotxetik.

Prezioa: 15 euro

ekoizleek eta bazkaria prestatuko duen Lurlan kooperatibak egindako ekarpenari esker, menu eder hau 15 euroan dastatu ahalko duzu.

Ordua: 14:00etan, Askatasuna plazan.

Kafean, Asisko eta Kike Amonarrizen ttantta

Astero ziri bat ekartzen diguten Kike Amonarriz eta Asisko Urmenetak zerbait darabilte buruan: fina, laburra, ideien eragilea... irria bezalakoa.

Leku mugatuak: Egin erreserba lehenbailehen

Bazkariko txartelak erreserbatzeko deitu ARGIAra: 943 37 15 45 edo idatzi bzuza@argia.com helbidera. Beste leku hauetan ere eskura ditzakezu: ARGIAko egoitzan (Lasarte-Orian); Usurbilgo Bordatxo tabernan, Hernaniko Oinddi eta Txilin eta Iruñeko Karrikin.

Pello Zubiriaren *Xebe* blogean). Era berean aukera izango dugu Oinez Basoa proiektua ezagutzeko, eta euskararen eta lurraren alde gure hazia jartzeko. Egingo ditugun hazi boletako batzuek Zangozako Oinez Basoan jaurtiko ditugu, beste egun batean. Beste Nendo Dango batzuek, berriz, Zubietan errauskailua egiteko urratu zuten lur saila biziberrituko dute. Eta norberaren esku bere etxe ingururako Nendo Dango batzuk egitea.

ARGIAzaleon Topaketa

12:00etan frontoian dugu zita, Argiazale. Harpidedunak, laguntzaileak, irakurleak, kolaboratzaileak, langileak... ezagutzeko eta elkarrekin norabidea irudikatuzeko gune izango da Argiazaleon Topaketa.

Hasteko eta labur, hitzez, irudiz eta ziriz azalduko ditugu ARGIAren ezaugarriak: komunikazio proiektua, berau egiten duen lantaldea eta harpidedun-laguntzaile komunitatea.

Jarraian, talde txikitara bilduta tartea hartuko dugu norberak bere proposamenak, iritziak, bizipenak botatzeko eta noski, besterenak jaso eta ikuspegia aberasteko. Hona landuko ditugun hiru galderak: Zein da ARGIArekin duzun harremana eta nolakoa izatea gurako zenuke? Zeintzuk dira zure gustuko gai edo sailak, eta zeintzuk egotea gurako zenuke? Herriz herri eta eskualdez eskualde, ARGIAko bide-lagunekin dinamika

Olarrondo
JATETXEA

*Toki aparta eta
inguru atsegina*



Muna Lurra kalea, 5 · 20170 Usurbil · Erreserbak: ☎ 943 360 376 / 626 686 036 · info@olarrondojatetxea.com · www.olarrondojatetxea.com



Argia Eguna gauz ere ospatuko dugu musikariokin: Behi Bi Blues, Eñaut Elorrieta eta Perlak taldea. Ondoren Esther Sound Sister DJak jarraituko du eguna biharamunera luzatzen.

ezberdinak abiaraztea dugu xede. Zer egingo zenuke zure herrian ARGIA bera eta bere balioak zabaltzeko?

Topaketa ixteko ideia guztiak bateratuko ditugu, eta umorez ere aterako diogu Argiazaleon Topaketari argazkia. Aurrera egiteko batzea eta ikuspegiak elkartzea bezalakorik ez dago. Zatoz eta parte hartu!

NAN jaurtiketa eta bola joko zirikatzaila

Bazkalostea, Katalunian herriz herri zabaltzen doan NAN jaurtiketa txapelketa egingo dugu: norik hurrunago bidali Frantziako, Espainiako (zein gainerako estatuetak) agiriak. Eskuz botatzea da araua, eta hasi entrenatzen, errekorra Gironako Bescanó herrian asturiar batek jarri berri baitu abuztuan: 38 metrora bidali zuen, alajaina! (bideoa ikusgai *Argiaren Barrenak* blogean). Bigarrenik, bola-jokoa aukeran izango duzu zer erakunde, kontzeptu eta pertsona jarri jopuntuan. Herri kirol hauek ikustekoak izango dira, Unai Brearen zuzeneko erretransmisioarekin.

Bertso saio koloretsua

Kategoriko bertsolari izateaz gain ARGIAko kazetari sinadura indartsuak ere badira Amets Arzallus,

Joseba Larratek egina da kartela.

Sustrai Colina eta Uxue Alberdi. Plazetan entzuleak eurenganatzear gain, ARGIAko bertso irakurleentzat jartzaile finak dira Julio Soto eta Miren Amuriza. Eta askorentzat Bertso Eguneko errebelazioa izan zen Rosi Lazkanok gogoan du umetan *Zeruko Argiatik* ikasten zituela bertso sortak. Sei bertsolariek kartel koloretsua osatzen dute belaunaldiz, lurraldetasunez, euskalkiz, bertsokeraz, generoz... Gaiak ARGIAko

erredakzioan ondu eta Urko Apao-lazak aurkeztuko ditu. Ez da ohiko saioekiko berezitasunik faltako...

Bertsolarien prestutasunari esker eta entzuleen sarrerako ekarpenarekin (5 euro, bertan salgai) ARGIA proiektua indartuko du bertso saioak.

Andrabanda eta kontzertuak

19:30ean Ondarroako emakume koadrilak osatutako Andrabanda perkusio taldeak astinduko ditu kaleak. 22:00etatik aurrera, aldiz, ahotsak hartuko du plaza: Behi Bi Blues osatzen duten Gaizka Azkara eta Azkaiter Pelox bikoteak 50eko hamarkadako blues abestiak euskaraz eskainiko dizkigute. Eñaut Elorrietak *Deserriko kantak* diskoan ekindako bakarkako bidea urratzen jarraituko du. Perlak laukoteak –postpunk hitzarekin definitzen dute euren estiloa– zuzeneko kontzertu indartsua eskainiko duela ziur gaude. Eta ez bukatzeko, Esther Sound Sister DJak funky musika nahastuz ordu txikiak arte girotuko du plaza. ■

argia.com Eguneko xehetasun guztien azalpenak *Argiaren Barrenak* blogean.



ELAY Taldea

Bikaintasunari begira egindako lana



Lizarragako Hiribidea, z/g
20577 Antzuola
(Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 61 00
Fax: 943 76 62 62
www.elay.com

Valentzierak nabarmen egin du atzera ikasturte berrian

30 URTE ONDOREN, Valentziako eskoletan ez dago valentzierazko murgiltze eredurik. Hainbat ikasgai valentzieraz ikastea derrigortu ordez, familiei hizkuntza aukeratzaren utzi die Hezkuntza Kontseiluak; aldiz, zenbait ikasgai gaztelaniaz ikastea derrigortu dute. Vicente Moreno Escola Valencianako lehendakariaren ustez, administrazioak ez du kontuan hartu gaztelania eta valentziera baldintza desberdinetan daudela, eta diskriminazio positiboa egin beharrean egiazko eleaniztasunaren kontra egin dute.

Escola Valencianak adierazi duenez, ikasturte honetan, ikastetxeeta-

ko valentzierazko lerroek behera egin dute nabarmen, baina Hezkuntza Kontseiluak duela bi urteko eta iazko datuekin alderaketak egitea saihestu du. Hala ere, Escola Valencianak nahikoa ditu datu soil batzuk beherakadaz jabetzeko. Ikastetxeek valentzierazko edo gaztelaniazko lerroa eskaintzeko aukera dute, baita biak ematekoa ere. 2014-2015 ikasturteko datuen arabera, eskola publikoetan eta kontzertatueta eskaintzen ari diren 19.292 lerroetatik %41,54k valentziera dute nagusi; %58,46k gaztelania.

3 urteko haurren ikastetxe publikoetan, valentzierazko ehun lerro inguru desagertu dira eta eskola

CESAR AMIGVET



Escola Valencianaren manifestazio bateko leloa: "Etorkizuneko eskola ez da eraikitzen iraganeko legeekin".

EKONOMIAREN TALAIAN

Bankari baten heriotza

ESPAINIAKO FINANTZA SISTEMAK astinaldia jasan du bere oinarri handietako bat izan den Emilio Botin Banco Santanderreko presidentearen bat-bateko heriotza dela kausa. "Bankuen enperadore" deitu izan diote Botini, baita "Espainia markaren enbaxadore" ere. AEBetako *Forbes* aldizkariaren arabera 1.100 milioi dolarretako (846 milioi euro) dirutza zuen. Urteroko soldata 3 milioi euro ingurukoa zen eta pentsio funtsa 25 milioi eurokoa.

Aberats ala pobre, heriotzak eta minak berdintzen gaitu, baina heriotza aurretik izandako bizitzak ez. Heriotza bera atzeratzeko edo mina arintzeko aberatsek baliabide gehiago dituzte, eta momentua iritsita AEBetara bidaiatu dezakete soluzio bila, bere garaian Banco Vizcayako presidente Pedro Toledok, Luis Olarra enpresariak edo Iñaki Azkuna Bilboko alkateak egin zuten bezala, nahiz eta egurrezko kutxa batean itzuli ziren,

Azkuna izan ezik, hau etxean hil zen.

Beraz, Botin gainerako herritarrek bezalaxe da heriotzan, baina ez da hala izan bizitzan. Bere ondasuna, soldata eta pentsioa ikusi besterik ez dago. Hain zuzen, aberats izateagatik zen boteretsu eta gobernuen politikak zehazteko ahalmena zuen. Jendartean desberdintasun ekonomikoa sustatu duten politikak. Botini buruzko egunkarietako heriotza-oharrak finantzari, bankari eta enpresari handiaz mintzo dira, "bere herriarekin konprometitutako gizona". Herri xehearen ikuspegitik, ezin ahaztu berak –eta kapitalismoaren beste ordezkari batzuek– gobernuen politikak zehaztu zituela, eta desberdintasun sozial eta ekonomiko handiagoa izaten lagundu zuela, etxegabetze, langabezia eta pobrezia gehiago izaten.

Juan Mari
Arregi



konzertatueta bederatzi gaztelaniazko zabaldu dituzte.

Egoera larriena Lehen Hezkuntzan dute. Hezkuntza Kontseiluak hizkuntzen artean aukeratzeko baimena zabaldu die ikastetxeei, baina zehaztapen garrantzitsu batekin: ia ikasgai guztiak gaztelaniaz irakaste-ko baimena dute, eta aldiz, valentzierazko ikasgai kopurua asko mugatu diete. Valentzierazko erduan, baimendu bezainbeste valentzierazko ikasgaiak hartuz gero, hiru hizkuntzen arteko banaketa ondokoa da: %46,6 valentzieraz, %36,8 gaztelaniaz eta %16,6 ingelesez. Gaztelaniazko erduan berriz: %24 valentzieraz, %60 gaztelaniaz eta %16 ingelesez.

MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Antropologoa mintzo Troikak hiltzen duen Grezia akitutik

Greziako gizartea agonia luzean itzaltzen ari da gainerako europarrek beste aldera begiratzeko bitartean, edo greziarrek merezi zutelakoan zigorra, edo beraiei ere –guri– berdin gerta dakien beldur direlako. Panagiotis Grigoriou historialari eta antropologoa www.greekcrisis.fr blogean kontatzen du bera ere harrapatu duen hondamendia.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

“SOLDATAK KOBRATZEN DITUZUEN eta sindikatuek nolabaiteko normaltasunean funtzionatzen duten bitartean, ekintzak eta borroak antolatzeko posible da; aldiz, soldatarik ez denetik eta jarraipen ekonomiko minimo bat ez dagoenetik aurrera, orduan beste zerbait hasten da”. Honela mintzatu zitzaion Belgikatik joandako sindikalistei Panagiotis Grigoriou antropologoa. Bestelako mundu batean murgildurik baitago Grezia.

Irakurleen donazioei esker zutik atxikitzen duen www.greekcrisis.fr blogaren “Temps du vent mauvais” (Haize gaiztoko eguraldia) aurkezpenean dio: “2009eko maiatzaren egun batez Nazioarteko Diru Funtza, Europako Batasunaren muina eta Europako Banku Zentrala gure eguneroko bizitzan sartu ziren. Troikak eta *Troikatarrek* gure bizitzak eta jokabideak aldatu zizkiguten. Gauza bat da ordura artekoa eta beste bat gerokoa. Gerratean sartzean edo okupazioan bezala. Bada haize gaizto bat, pozoia airean, gure ohitura handi eta txikien heriotza-kondena, mutazio kolektibo azkarra, erreferentzien galera. Geroztik, baita auzo chice-tan ere, murgildu gara... zakarrontzietan”.

Oinezko herritarren eguneroko anekdotak eta buruzagi politikoen

bezala militanteen edo komunikatzaileen eztabaida eta erabakiak analizatzen ditu Grigoriouk gizarteen bilakabideetan espezializatua dagoen ikerlariaren bisturiz. Irailaren 3ko sarrera luzean, argazkietako batek erakusten du Atenasko ambulategi batean medikuak atean eskegitako oharra: “Ate honen atzean zure medikua kontsultan ari da orain kontratu prekarioz, kotizazio sozialik gabe lanean, berak ere ez dauka aseguruik eta ez du ezagutuko erretiro saririk”. Doktoreak ez badauka segurtatua erretireta...

Joan den apirilean Erromara konbidatu zuten Panagiotis Grigoriou *Eurorik gabeko Europa. Europa-ko enpresa eta familientzako koste eta etekinak* biltzarrerara. Han antropologoa esandakoa bildurik dago Youtubeko bideo batean. Hona bere laburpena, Grigoriouren beraren ahotsean.

Sentitzen dut Italia gaur dagoela Grezia 2009-2010ean zegoen bezala. Gu Grezian dagoeneko urrun gaude. Krisia bizi dugu gerra bat gertatu balitz bezala: lehen gauza bat zen, orain oso ezberdina.

Delako krisiak greziar gehieni deuseztu die denbora antolatzeko ahala, etorkizuna bera. Ezin da bidaiarik programatu, asteburuko irteerarik, ez jubilazio garairik. Dena jarri da hankaz gora. Historia-

Panagiotis Grigoriouren www.greekcrisis.fr blogean sartzen bazara, honako oharra aurkituko duzu albo batean: “*Donation*. 2014ko irailerako eskariaren helburua: 1.000 euro. Abuztu amaiera arte jasotakoa: 395 euro. Mila esker zure sostenguagatik!”. Ez da ohikoa diru eske aritzea antropologo eta historialari ezagun bat, zenbait libururen idazlea, kultura zabalekoa. Baina gaur Grezian da gehiago ikerketarako dirurik eta kolaborazio finkoagorik ezean irakurleen laguntzarekin segitu nahi du ikertzen. Berrikitan Frantzia plazaratu diote *La Grèce fantôme*. Etsita mintzo den arren, Greziaren “alde argia” ere azaltzen du, pagatuak ez izanik ere komunikazioan edo funtzio publikoan lanean jarraitzen dutenak herritarrentzako... “Duintasunagatik gizartea ez dago erabat hondoa jota, badira diruz hobeto dabilzanak elkartasuna erakusten dutenak, familia eta lagun artean bezala modu antolatuan”.

ren azelerazio bortitz bat nozitu dugu, seguruenik beste lekuetan ere jasango dutena. Etorkizuna desagertu da jendeen buruetatik.

Egoeraren alde ekonomikoak ezagunak dira. Barne Produktu Gordinak laurdena galdu du lau urtetan. Komertzioa %30-%40 murriztu. Langabezia, ofizialki, %30, gazteetan %65. Horrelako galerak ez dira ikusten gerretan baizik.

Antropofagoak legeen egile

Troikak –segitzen du Grigoriouk Erromako hitzaldian– 2009ko maiatzaren sartu zuen eskua Grezian eta boterea berenganatzearen poderioz orain hark manatzen du herritarren eguneroko bizimoduaren xehetasunik txikienean ere. Aldaketa erradikala izan da, eta ez jendeak eragina. Grezian aipatzen da erregimen berri batean bizi garena, *Memorandumaren* erregimenean.

Greziak Troikarekin sinatutako Memorandumak herritarren bizitzan ekarri dituen aldaketek iragaritzen dute mundu berri bat. Soldatak jaitsi dira, gehienetan erdira. Ondasunak harrapatu dira; greziarrak ohartzen dira gerra batean bezala ostu zaizkiela ondasunak. Ez dut aipatuko osasun sistemaren hondoratzea, hainbat dokumentaletan ikusi duzuen. Eta hori guztia kolpe bakarrean gertatu da.



zioaren kontrako erregimen batean bizi gara. Troikak ezarritako memorandumak [hiru aipatzen ditu Grigoriouk] parlamentariak onartu dituzte osorik irakurri ere egin gabe, egun batetik bestera onartzera derrigortuta, eta dekretuokin zakarretara bota dituzte hamarkadetan lortutako lege laboral eta zibilak.

Herritarrak bizirauteaz daudenez kezkatuta, ez diote harreta handia jarri erregimen aldaketari. Greziak mendebaldeko erregimen konstituzional baten itxurak egiten ditu, baina ez da batera horrela.

Haustura historiko baten aurrean gaude, ez bakarrik Grezian, 1945etik 1990eko hamarkada arte bizi izan dugun situazioa eten da. Mutazio bat da. Sortu da totalitarismo zeihar berria deitu dezakegun erregimen bat. Europan sortzen ari da eta gainera Europako instituzioen babesean eta Europako eliteek bultzatua, tartean Alemaniakoek.

Horraino Grigoriouk Erroman emandako hitzaldiaren pasarteak. Gainerakoan, bere blogean egunero gertakizun eta lekukotasunak biltzen ditu. Ezagutzen duen kazetari honena bezalakoak: “Jornala erdira jaitsi didate eta emaztea langabezian dut. Bi etxebizitza genituen Atenasen eta gastuei ezin aurre egin. Bigarrena saldu dugu, 15.000 eurotan. Estatuarentzako 5.000 zergatan, beste zati bat zorrak ordaintzeko eta... emaztearen gurasoek bizi osoan pagatuz erositako etxeari sei mila euro atera dizkiogu. Ondasunak ostu dizkigute kotizazioak lapurtu dizkiguten neurri berean”. ■



Lan munduan konbenioak desegin dira eta lan harreman berriak, baita funtzio publikoan ere, esan dezakegu direla antropofagiazkoak.

Euroaren eremuko beste herrialdeetan baino gehiago Grezian krisiak sozializazio berria ekarri du, bizitzia eta zehazkiago bizirautea [survivre] erorketa bezala irudikatzen duena. Adibidetzat, etxeak berotzeko berriro egurretara jotzea fuelaren prezioa hiruz biderkatu delako. Atzerakada terrible moduan bizi du jendeak, askok gogoan dute nola bizi ziren 1960a baino lehen.

Gero dago suizidioen gaia. Ez da soilik estatistiko edo sinbolikoa, denok ukitzen gaitu. Nire inguruan lau ikusi ditut. Bi nire sorterrikoak. Gero ezaguna dudana elektrikari

baten emaztea. Eta urtarrilean lehengusu bat. Sufritzen zuen bere komertzioak galdu zuelako jardueraren %85. Ez zen txiroa, bazeukan dirua oraindik, baina ez zuen ikusten etorkizunik, nola gaintu erretiroa arte falta zituen zazpi urteak hilero kotizatuz... Balkoitik bota zuen bere burua.

Aipatu dizuet azaltzeko datu hotzak baino gehiago dela arazoa, egoerak gizartearen muga anatomikoa gaintzen du. Biziaren eta heriotzaren aurreko harremanak ez dira berdinak Troikaren ondotik.

Politika ere inarrosi du krisiak, izan ezker edo eskuin. Baina nola bereizi eskuina eta ezkerreko populazioaren %80ak honelako *shocka* jasan duenean? Funtsean konstitu-





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Eta Espainian kartzela zigorren oihartzuna

“ELKARREKIN HOBETO” hasi zen ezetzaren kanpaina Eskozian, mezu erromantiko eta solidarioa kanpainaren erdian jarriz. Kanpainaren amaierarako mozorroa kendu eta argi jo du mehatxu ekonomikora: Ingalaterrako Bankuko Mark Carney agintari nagusiak Eskoziak librarekin jarraitzea ez duela sostengatuko iragarri du, eta enpresa eta finantza gune handienek ere Eskoziatik joango direla diote, besteak beste, Eskoziako petrolio kudeatzen duen BP konpainia erraldoiak.

Enpatearen unean, botere ekonomikoa nagusiak giltzarri dira beldurraren estrategian, hala izan zen Quebecen, hala izango da Eskozian eta, beste neurri batean bada ere, hala Katalunian ere. Eskozian alde bakoitzak dagoeneko egin du berea eta orain herritarren txanda da. Ezin ezkutatu ezetzak etsipen maila bat ekarriko lukeela Katalunian edo Euskal Herrian, baina erreferendumera akordioz iristea bera jadanik ipar-orratz izango da luzerako estatuek nazio gisa eta subjektu politiko gisa onartzen ez dituzten herrientzat.

KATALUNIARENTZAT baiezkoa aldeko haize ufada litzateke. Ezezkoak ez dirudi halako eragin handirik ekarriko lukeenik. Diadak erakutsi du independentismoak inoiz baino indartsuago jarraitzen duela Kataluniako gizartean. Hedabide espainiar nagusiak bakarrik jarraitzen dituenak, ostera, katalan soberanismoa paretaren aurka ikusiko du. Kontua ez baita han gertatzen dena erakustea, Espainiako iritzi publikoa irabaztea baizik. Euskal Herriko esperimentzia luzeak jadanik argi eraku-

tsi digu garrantzitsuena hori dela Estatuko kolore desberdinetako gobernu eta alderdi nagusientzat, Espainian irabaztea. Eta horretarako barne etsaia ondo astintzea giltzarri da, Espainiaren arazoak ezkutatu eta kohesio zentralista trinkotzeko. Hala komeni denean, deabrua ETA da, Batasuna, Ibarretxe, Mas, ERC edo Podemos.

Oraingoz beldurraren estrategiak independentzia zaleen hazkundera besterik ez du ekarri Katalunian. Baina Espainiaren aldetik orain hasiko da benetako erantzun festa. Ostiral honetan, 19an, Kontsulta Legea onartuko du Kataluniako Legebiltzarrak. Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseilua 22an bilduko bide da eta hor erabakiko litzateke Kontsulta Legearen aurkako helegitea. 23an Konstituzio Auzitegia bilduko da eta honek helegitea onartu orduko

Madriplek Esquadra Mossoak bere agintepean har ditzake eta Masentzat 15 urteko kartzela zigorra ekar dezakeen prozedura ireki

Kontsulta Legea bertan behera geratuko da behin-behinekoz. Hori gertatu aurretik egin behar du Masek A9ko kontsulta deialdia, seguruenik 20an bertan edo 21ean.

Oraindik ez legoke desobedientzia zehatzik, baina halakorik gertatuz gero jadanik neurri zehatzez ere hasi dira berbetan Madrilen: Esquadra Mossoak bere agintepean har ditzake eta Masentzat 15 urteko kartzela zigorra ekar dezakeen prozedura ireki. Hori kontsultarekin aurrera jarraituko balu. Baina ez dirudi desobedientziarik

egotekotan hau kontsultaren inguruan gauzatuko denik. Katalan soberanismoaren harribitxia da kontsulta, bere ibilbide demokratikoaren sinbolo eta Generalitateak eta Kataluniako Legebiltzarrak ezinbesteko dute halako tresna garrantzitsu bat garbi mantentzea, besteak beste, atzerrian desobediencia kutsurik duen edozerrekin zikundu gabe aurkezteko. Oraingoa kontsultaren unea da. Baina ondoren hauteskunde aurreratuek izango da, soberanismo katalanak antolatzen eta independentzia eraikitzen jarraitzeko heldu leku aproposik badu hori baita. Adostasunari eusteko gai badira bederen. Desobediencia doinuetarako unea, izatekotan ere, geroago etorriko da.


Bitartean, Espainiako Gobernuaren biderik zentzuzkoena Konstituzio Auzitegiaren esanak aintzat hartzea litzateke: Konstituzio Auzitegiak ezin ditu konpondu ordena konstituzionalean sortzen diren arazo guztiak, bereziki Estatuaren zati batek bere izaera konstituzionala aldatu nahi badu; zeregin hori botere

publikoen arteko negoziazio eta elkarrizketaren bidez konpondu behar da.

2013ko urtarrilean Kataluniako Legebiltzarrak onartutako burujabetza adierazpena bertan behera uzteko, 2014ko martxoan Konstituzio Auzitegiak emandako epaiaren aholkua da. Hirugarren bidearen hauspo da Espainia batuaren ikusmolde errealistarenantz. Bide logiko eta zentzuzkoena litzateke gatazka saihestu nahi duen edonorentzat. ■



ASTE HONETAKO Zozketak



Argiako harpidedunentzat




Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2




Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

3



HERRI OIHUA ez

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



Bixente Ametzoy ARGIA azalak

1978. urtean Bixente Ametzoyk
Zeruko Argia aldizkarian egindako
36 azal laminatan inprimatuak

Lamina sorta
www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2427. Argia)

LAR ZALDIK

- Felipe Alkorta Andonegi (Donostia)

SAN TELMO MUSEOA

- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Irune Iturbe Arriola (Aretxabaleta)
- Imanol Irigoien Aranberri (Oartzun)

EKAINBERRI

- Idoia Ormaetxea Irleta (Durango)
- David Cascan Porben (Barakaldo)
- Iban Garate Garmendia (Gasteiz)

INGURU ABENTURA Espeleologia

- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)
- Eustakia Ormazabal Azkue (Errenteria)
- Josu Jimenez Muro (Donostia)
- Ana M. Zubiarrearteria Olañeta (Eibar)

ILLIMANI

- Gurutze Aiertzaguenara Aranzibia (Zaldibar)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia



argia eguna

IRAILAK 27 USURBIL

9:30 HERNANIKO FANFARREAREKIN DIANA

10:00 JAIAREN IREKIERA EKITALDIA

10:15 IBILALDI GIDATUA

JAKOBA ERREKONDO (PAISAIA), JOSU TELLABIDE (ETNOGRAFIA) ETA JON ANDER GALARRAGA (KONPOSTA)

10:15 JOLASEN TXOKOA

11:30 'NENDO DANGO' TAILER EKOLOGISTA

12:00 ARGIAZALEON TOPAKETA

14:00 GARAICO ETA EUSKAL HERRIKO
PRODUKTUEKIN HERRI BAZKARI UMORETSUA*

ASISKO URMENTA ETA KIKE AMONARRIZEKIN

16:30 NORTASUN AGIRI ESPAINIAR/FRANTZIAR JAURTIKETA
BOLA-JOKO ZIRIKATZAILEA

18:00 BERTSO SAIOA:
AMETS ARZALLUS, MIREN AMURIZA, JULIO SOTO,
UXUE ALBERDI, SUŠTRAI COLINA ETA ROSI LAZKAÑO
SARRERA 5€ - BERTAN SALGAI

19:30 ANDRABANDA KALE EZTANDA

22:00 KONTZERTUAK:
BEHI BI BLUES
PERLAK
EÑAUT ELORRIETA
ESTHER SOUND SISTER

*HERRI BAZKARIA

HIRU TOMATE MOTAKO ENTSALADA
'BASATXERRI' PATEA EZPELETAKO PIPERREKIN
IBARRAKO PIPERRAK
ARGUEDASKO ARROZ EKOLOGIKOA BARAZKIEKIN
'LUMA GORRI' OILASKO GISATUA,
ARABAKO PATATA ETA GARAICO BARAZKIEKIN
IDIAZABAL GAZTA ETA BASERRIKO IZOZKIA
KAFFEA
SAGARDOA TXOTXETIK ETA ARDO EKOLOGIKOA
AUKERA BEGETARIANOA ERE IZANGO DA

TXARTELAK 15€AN SALGAI
200 LAGUNENTZAKO LEKU MUGATUA
ARGIAKO EGOITZAN, LASARTE-ORIAN
ARGIARA DEITUTA: (0034) 943 371545
EMAIL BIDEZ: BZUZA@ARGIA.COM
USURBILGO BORDATXO TABERNAN
HERNANIKO OINDDI ETA TXILIN
IRUÑEKO KARRIKIRIN

LAGUNTZAILEAK

antza
komunikazio grafikoa

